

EZTABAIDA: ATHLETICZALEEK REALA BIGARREN MAILAN IKUSI NAHI DUTE? /7

KIROLA: IBARREKO PILOTA ELKARTEAK DEBARROKO TXAPELKETAN LEHIAN /11

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2002ko urtarrilaren 25a

III. urtea • 50. zenbakia • DOAN BANATZEKO

**BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA**



LUXIO UGARTE

"Gizarte ekonomiak aukerak eskaintzen ditu kooperatibetatik at" /9

ARETXABALETA

**Kepa Urrak kartzelan
10 urte beteko dituela eta,
ekitaldiak /10**

Goienka2a

**Acid Jazz zikloa
Oñatiko Santa Ana
aretoan**

Argia saria 2002 GOIENKARIARI

GOIENKARIAk Argia saria 2002 jaso du, prentsa idatzia-
ren atalean. Debagoieneko
astekariak gain, beste hauek
ere saritu dituzte: Irratian,
Irulegi Irratiko Pantzo Hirigay
esataria; Telebistan,
ETBko *Sorginen Laratza* saio-
ko Anjel Alkain aktorea; Sare-
ko Argia saria, Elhuyar zientzia
elkartearen zientzia.net
webgunea; publizitatearen alo-
rrean, BBK aurrezki etxea;
eta, merezimenduzko saria
Euskal Herriko Bertsozale
Elkartearendako izan da. /6



**ARGIA
SARIAK**

ASTEKO GAIA: ARGENTINAKO KRISIA AZTERGAI

Argentina: non zinen eta, orain, non zara

Espainiako gerraren garaietan eta ondoren, txirotasunetik ihes egin guran, euskaldun asko atzerriara joan zen. Asko eta asko Argentinara. Hainbeste jende erakartzeko boterea zuen herri batek

aberatsa behar zuen izan. Historiarako geratu dira Juan Domingo Perónen, orduko presidentearen, emazte Evak gariz beteta bidalitako itsasontziak. Zoritxarrez, orain alderantziz gertatzen dabil,

eta argentinarrak dabilta herri-
tik hanka egiten. Zer gertatu da?

Hemen bizi diren hainbat argentinarren eta hemendik hara joandako beste hainbaten iritziak jaso ditugu. /2-3

ARAMAIO

Pablo Ibarri elkartasuna adierazi diote Aramaion

Aramaioko udalbatzarrak Ameriketako Estatu Batuetan hiltzera zigortu duten Pablo Ibarri elkartasuna adieraztea onartu du oraingo astean. Mozioa landu zen horretarako. Heriotza-zigorra ere gaitzetsi zen mozioan. /5

OÑATI

Gaztelekuaren gaineko bilera deitu du gazte talde batek

Gaur 19:30ean jarri dute hitzordua Oñatiko gaztelekuko obretan. Gaztelekuaren gestioa gazteena izatea da gazte talde horren helburua, eta gaztelekuak eskainiko dituen baliabide eta aukera guztiei etekina ateratzea. /4

BERGARA

Loteriako sari nagusia tokatu arren, ez zen txartelik saldu

Joan den zapatuko Loteria Nazionalako sari nagusia Bergaran tokatu zen (4 milioi euro), baina xentimo bat bera ere ez da banatu. Izan ere, ez zen saritutako txartelik saldu eta itzuli egin ziren.

ENPRESAK

Bergarako Ecenarro kooperatiba MCCn sartu da

Bergarako Ecenarro kooperatiba MCCn sartu da. Ecenarro enpresan burdina eta altzairua lantzen dituzte. 2001eko ekitaldian, 1.500 milioi pezeta fakturatu zituen. /3



ENKO AZKARATE

Gero eta gehiago birziklatzen dugu

Debagoiendarrok geroago eta gehiago birziklatzen dugu. Gainera, zabor poltsa gutxiago sortzen dugu. Mankomunitateak emandako datuen arabera, iaz, debagoiendarrok 2000. urtean baino gehiago birziklatu genuen. Debagoiendar bakoitzak urtean 265 kilo zabor sorrarazi zituen. Lehenengo aldia da, azken urteotan, zabor gutxiago sortzen dutela ibarreko bizilagunek. /3

Argentina, non zinen eta non zara!

Munduko herri aberatsenetariko bat, miserian

LEIRE KORTABARRIA

Espainiako gerraren garaian, eta ondoren, txirotasunetik ihes egin guran, euskaldun asko atzerrira joan zen; tartean, hainbat eta hainbat Argentinan etorri izan ziren. Hainbeste jende erakartzeko boterea zuen herri batek aberatsa behar zuen izan derrigorrez. Historiarako geratu dira Juan Domingo Peronen, orduko presidentearen emazte Evak gariz beteta bidalitako itsasontziak. Argentina "munduaren aletegia" zen. Zoritxarrez, orain alderantziz gertatzen dabil, eta argentinarrak dabilta herriatik hanka egiten. Zer gertatu da?

LAUGARREN EKONOMIA, ZULORA

Latinoamerikako laugarren ekonomia 132.000 milioi dolarreko zor publikoa du, historiako handiena, eta 6.500 milioiko defizita. FMI ez dago Argentinari dirua mailegatzeko prest. Moneta %30 devaluatu da. Klase ertainak arriskuan ditu bizi osoko aurrezkiak. Bi astean, bost presidente izan dira, baina herriak haserre segitzen du. GOIENKARIAK Argentina ondo ezagutzen duten sei lagunekin egin du berba.



Jakinezina da nagusi Argentinan, inork ez dakielako zer gertatuko den epe laburrera.

“Nazioarteko kapitalak Argentinako politikariak erosi izan ditu”

“Argentina oso aberatsa da, baina jendeari ez diote aberastasuna ukitzen ere uzten”

“Aurrerantzean, kontu eta ganora handiagoz ibili beharko dira agintariak”

Giokela, Okela Garbia Muturretik Buztanera

Giokela, Berme Osoko Okela

Giokela, Kalitatezko Okela

Ez guk, Certicar-ek ziurtatua




OÑATI
TXANTXIKU Harategia
Arantzazu, 2

ANTZUOLA
MUJKA Harategia
Kalebarren, 1

ARRASATE
J. ELORTZA Harategia
Juan Bengoa, 1
J.R. OTAMENDI Harategia
Ferrerias, 20

SALABERRIA Harategia
Mondragones z/g (azoka)
AGIRRE-ETXE Autozerbitzua
Zarugalde, 33

BERGARA
URCELAY Harategia
Ibargarai, 16
JON LETURIA Harategia
Pedro Deuna, 24
L. M. REZOLA Harategia
Matxiategi, 7




Zer jan, hura izan




NORA PALMITANO

Lanbidea: Irakaslea
Jaio: Argentinan
Bergaran bizi da 1992.etik



RICARDO LANDRISCINI

Lanbidea: Medikua
Jaio: Argentinan
Debagoiengan egiten du lan



DIEGO ARDOAIN

Lanbidea: Ikaslea
Jaio: Argentinan
Urtebetez Oñatin ikasiko du

AEB, nagusi


Argentinako politikariek beti egin izan dute Ameriketako Estatu Batuek agindu dietena, eta nazioarteko kapitalak politikariak erosi izan ditu. Nazioarteari komeni zaio Hego Amerika gaur dagoen bezala egotea, eta horregatik ez zaie interesatzen Argentinan gerra osteko Alemanian edo Japonian egin ziren laguntza plangintzen antzekorik ezartzea. Bestalde, hango bankuek jendearen diru guztia herritik atera zuten. Dena dela, gizartea guztiz desegituratua dago, elkartzeko eta borrokatzeko ahalmenik gabe. Etor-kizuna beltz dator.

Balio galtzea

Krisia hamarkada askotako barne eta nazioarteko borrokaren ondorioa da. Kolpe militarrek hilketak, erbesteratzea, porrota, eta abar ekarri zituzten; baita politikoen ustelkeria ere, diru publikoaz baliatuz eta Argentinako aberastasuna pribatizatuta. Argentina aberatsa dela esan ohi da, baina han lehengaien prezioa herrialde zentralak ipintzen dutenez, balioa galtzen dute. Herri horien eragina dela-eta, Argentinak bere produkzioa prezio devaluatuekin azaldu behar du munduko merkatu globalizatuetan.


Gazteak zer?

Gazteak oso arduratuta daude, egoera larria delako. Ni oraintxe iritsi naiz, urtebetez Debagoiengan ikastera, eta familiakoek eta adiskideek laguntza osoa eman didate. Guztiek esan didate orain dela kanpora joateko unerik egokiena, Argentinan ezingo nukeelako lanik aurkitu. Hura geldirik izango da, gutxienez, beste urtebetez. Gazte asko Europara etortzen dabilta, eta baita jende nagusi ugari ere. Jainkoari eskatzen diot agintariei lagun diezaien herriarendako gobernatzen, orain arte poltsikorako gobernatu dutelako.



AITOR AIASTUI

Lanbidea: Ulmako area managera
Jaio: Arrasaten
la bost urte Argentinan



JOSE RAMON ARRAZOLA

Lanbidea: Nekazal ustiatzailea
Jaio: Oñatin
31 urte eman ditu Argentinan



IGOR BASAURI

Lanbidea: Ingeniaria
Jaio: Bergaran
Hiru urtez bizi da Argentinan

Jakinezina

Egoera txarra da, oro har, baita euskal enpresendako ere. Arazo larriena da zer gertatuko den jakineza hau. Inork ez daki zer etorriko den. Moneta dolarrarekiko zelan geratuko den ere ez dakigu oraindik. Ekonomia moteltzea lehendik ikusten genuen, baina azken gertakariak krisia areagotu egin dute. Gu (Ulma), baita beste enpresa batzuk ere, zain gaude orain zer gertatuko den. Guk, behintzat, hemen jarraitzeko asmoa dugu, epe luzerako inbertsioa egin dugulako eta Argentinarekin batera haztera eta lan egitera etorri garelako.

Ustelkeria

Krisialdia 20ko hamarkadatik dator. Argentinak esportatu gura zuen, baina bere prezioak ez ziren lehia-korrrak. Gero eta zerga gehiago ipintzen hasi ziren, eta politikariak gero eta ustelagoak izan dira, eta justizia eta polizia erosi dituzte. Oraingoak ere horrelakoak dira, eta egoera okerragora doa; ez dut euren inongo konfiantzarik. Argentina oso aberatsa da, baina jendea ez diote hori ukitzen ere uzten. Emigratzea ez da irtenbide bat, nire ustez; emigrazioa beti tragedia bat da. Ez dut epe laburrera irtenbiderik ikusten.

Itxaropena

Urtetan izandako ustelkeriak izan du eragin handiena. Klase xehe gero eta ugariagoak, bai eta desagertuz doan klase ertainak ere, oso neurri gogorrek jasan behar izan dituzte, eutsi ezinezko egoera horretara iritsi arte. Baina itxaropenerako ate bat zabaldu dela uste dut: jende arrunt zintzoa nekatu egin da horrenbeste lapurreta eta trikimailurekin, eta aurrerantzean, kontu eta ganora handiagoz ibili beharko dute agintariak. Klase politikoaren berritze bat izan beharko luke, jendeak konfiantza jartzeko bateren bat behar duelako.

Bailaran, labur

ZABORRAK

Zabor poltsa gutxiago sortu eta gehiago birziklatzen dugu debagoiendarrok

Debagoiendarrok geroago eta gehiago birziklatzen dugu. Gainera, zabor poltsa gutxiago sortzen dugu. Mankomunitateak emandako datuen arabera, iaz, debagoiendarrok 2000. urtean baino gehiago birziklatu genuen. Debagoiendar bakoitzak urtean 265 kilo zabor sortu zituen. Lehenengo aldia da, azken urteotan, zabor gutxiago sortzen dutela ibarreko bizilagunek. Horrek esan nahi du iaz, birziklapenak gora egin zuela nabarmen. Paper eta kartoi bilketari dagokionez, esaterako, Arrasaten, iaz, biztanleko 28 kilo paper eta kartoi batu zituzten. Guztira, 571 mila kilo batu zituzten Arrasaten. Debagoieneko gainerako herrietan izandako joerari begiratzen badiogu, Antzuolan batu zuten kartoi eta paper gehien. Bestalde, plastiko eta tetrabrik ontzien bilketari erreparatzen badiogu, Arrasaten biztanleko 6,16 kilo jaso zituzten, eta herrian, guztira, 146 mila kilo. Gainerako herrietako joeraren arabera, Bergaran jaso zuten plastiko gehien. Beiraren kasuan, oster, Arrasaten, guztira, 590 mila kilo jaso zituzten, 24 kilo biztanleko. Eta gainerako herriei begiratuz gero, Aretxabaletan batu zuten beirak gehien. /GORKA ETXABE

ENPRESAK

Bergarako Ecnarro kooperatiba elkarte MCCn sartu da

Bergarako Ecnarro kooperatiba MCCn sartu da. Ecenarro enpresan burdina eta altzairua lantzen dituzte. 2001eko ekitaldian, 1.500 milioi pezeta fakturatu zituen, %65 barne merkatutik eta %35 esportaziotik. Frantziara eta Alemaniara esportatzen du, batez ere. Ecenarro enpresa 1943an eratu zen eta 1982tik gaur egunera arte kooperatiba izan da. Burdina eta altzairua lantzen ditu, eta, batez ere, torlojuak, errotuluak eta planoaren araberako pieza bereziak egiten ditu. Produkzio ia osoa automozio sektoreko enpresetara bideratzen du. Bezerorik garrantzitsuenak Renault, Peugeot eta Volkswagen-Seat dira. Gaur egun, 64 langile ditu Ecenarro, eta azken lau urteotan ahalegin handia egin du instalazioak berritzen. Guztira, langintza horretan 470 milioi pezetako inbertsioa egin du. /G.E.

ENPRESAK

Itea Taldea eratu dute Bergarako Itea eta Felix Gabilondo enpresek

Bergarako Itea eta Felix Gabilondo enpresek Itea Taldea eratu dute. Eratze hori dela-eta, Josu Jon Imaz Industria sailburua Bergarara etortzeko zen gaur, egubakoitza, goizean, bi lantegiok bisitatzea. Automozioaren merkatuak ezartzen dituen erronkei aurre egin eta horiei erantzuna emateko sortu dute Itea Taldea. 1967. urtean sortu zenetik hona, azalaren estalduren eta berregosteko tratamendu termikoen arloetan ibili da Itea. Eta, bi arlo horietan automozioaren alorrari berari erantzun osoago eta egokiagoa eman nahian, Felix Gabilondo enpresa erosi du. Hori horrela, zabalkuntza plana garatu eta hainbat inbertsio egin ditu Itea Taldeak; 3.305.566 euro inguruko inbertsioa egin du (550 milioi pezetan). Bestalde, langile kopuruan gora egin du: 1998an 19 langile bazituen, orain, Itea Taldeak 43 ditu. /MONIKA BELASTEGI

MEHATXUA

Bonba-auto mehatxua izan zen martitzenean Bergarako epaitegian

Martitzenean, Bergarako epaitegi ingurua itxita izan zuen Ertzaintzak, bonba-auto mehatxua izan zen-eta. Donostiako DYAn jasotako deiaren arabera, Gipuzkoako epaitegi batean, epaitegia zehaztu gabe, bonba-auto bat eztanda egitekoa zen 10:30ean. Ondorioz, Bergarako epaitegi ingurua itxi eta autoak miatu zituzten. Arriskurik ez zegoela ikusi, eta 11:00etan berriz ere zabaldu zuten. /M.B.

OÑATI

GAZTELEKUAREN GESTIOA

Gaztelekuaren gaineko bilera deitu du gazte talde batek

Gaur izango da bilera, eta gaztelekua gazteek gestionatu behar dutela dio talde horrek

AINTZANE IRIZAR

Gaur arratsaldeko zazpi eta erdietan jarri dute hitzordua gaztelekuko obretan bertan. Gaztelekuaren gestioari buruz arituko dira batzar horretan.

Horren gainean egingo duten bigarren batzarra izango da gaurkoa, baina deialdi zabala egiten duten lehenengoa. Hasierako batzar hartan bost bat koadrilatiko gazteak batu ziren. Euren helburua da gaztelekua herriko gazteek gestionatzea. Horretarako deitu dute gaurko batzarra, herriko ahalik eta gazte gehienen iritzi eta gestio bideen proposamenak batzeko. Euren esanetan, lanak amaitzerakoan, hainbat jarduerak egiteko aukera emango du gaztelekuak, eta eskaintzen dituen baliabide eta aukera horiei guztiei etekina ateratzea da euren

helburua, baina gestioa gazteena izanaz. Gazteon ustetan, Oñatin koadrilatan banatzen da jendea, koadrila nahiko itxietan, eta, bide batez, horrekin apurta eta gazteen arteko hartu-eman eta lankidetzaz bultzatzea ere lortu nahi dute horrela.

Azkeneko bi aste hauetan herriko taberna askotan egon dira proposamenak eta iritziak jasotzeko postontziak, eta horiek guztiak ere kontuan hartuko dituzte aurrerantzean. Herriko gazte askok, bestalde, ez ei dakite gaztelekuaren proiektua zertan den, eta horren gaineko informazioa zabaltea ere nahi dute. Bestalde, argi utzi nahi izan dute oso gustura daudela gaztelekuaren proiektuarekin, gaztelekuaren egiten ari diren lanekin, eta ez daukatela ezer lan horien aurka, alderantziz, proiektu ona dela irizten diote.

Zertzelada

Gaztelekuaren gestioa gazteena izatea da talde horren helburua, eta gaztelekuak eskainiko dituen baliabide eta aukera guztiei etekina ateratzea.

BERGARA

ARETO BERRIAK

Erakusketa aretoa egiteko, lokala erosi dio Bergarako Udalak Kutxari

Lehen solairua eta sotoa dauzka eta 342.580 euro inguru ordaindu ditu

MONIKA BELASTEGI

Aretoa Barrenkalen dago, San Martin herriko plazatik gertu. Batez ere, erakusketa areto izango da, baina beste erabilera batzuk ere izango ditu.

Barrenkaleako zazpigarren zenbakian lokala erosi dio Bergarako Udalak Kutxari; Aroztegi etxearen beheko solairua eta sotoa, hain zuzen ere.

Beheko solairuak 220 metro koadro ditu, eta sotoak, berriz, 70. Victoriano Gallastegi alkateak azaldu duenez, oso erabilera jakina izango du beheko solairu horrek. Haren esanetan, erakusketa areto gisa erabiltzeko birgaituko dute. Hala ere, Gallastegik gehitu du beste erabilera batzuk ere izango dituela: hitzaldiak egiteko, esaterako. Sotoari dagokionez, biltegi, komun eta horrelakoetarako erabiliko dute.

Esan bezala, Aroztegi etxeko lokala Kutxari erosi dio Udalak, eta 342.580 euro inguru ordaindu ditu beheko solairuagatik eta sotoagatik (57 milioi pezeta).



MONIKA BELASTEGI

Aroztegi etxeak XVI. mende erdialdeko ate tailatu ederra dauka.

ERAKUSKETA ARETO BAKARRA

Gaur egun Bergaran dagoen erakusketa aretoa kultura etxean dago. Udalaren asmoen artean, baina, kultura etxea Jardun Euskara Elkartearen eskuetan lagatzea dago. Hori horrela, erakusketa areto barik geratuko litzateke herria.

Erosi berri duten lokalak hutsune hori beteko luke. Gainera, herri erdialdean dago, eta horrek dituen abantailak azpimarratu ditu alkateak. Haren esanetan, herritarrendako oso eroso izango da, plazatik gertu dagoelako eta Barrenkaleri bizitasuna emango diolako.

ANTZUOLA

Akiñabeiko errota, Lizarraga auzoan, konponduta eta martxan dago

AINTZANE IRIZAR

Jose Mari Iturbe antzuolarrak konpondu du errota. Hainbat baserriarrek egindakoa da Akiñabeiko errota, argindarra sortzeko helburuarekin. Urte askotan, baina, bertan behera lagata egon zen. Duela zortzi urte erosi zuen Jose Mari Iturbek, konpondu eta berriro martxan jartzeko asmoarekin. Eta horixe egin du, hain zuzen ere. Asteburu luzeak pasatu behar izan ditu lanean, baina azkenean bukatu du. Behin lanekin amaituta, edozein herritarrek, eskolako umeek edo nahi duen guztiak dauka ikustera joateko aukera eta gonbita.

Domeka goizean, Arrolakoak joango dira errota zelan geratu den eta zelan funtzionatzen duen ikustera. Goizeko bederatzietan irtengo dira herriko plazatik, eta Akiñabeira joan baino lehen, ibilaldia egingo dute herrian. Plazatik San Blasko ermita aldera abiatuko dira; handik, Madariaga baseritik pasatu eta gero, Trekutzera iritsiko dira. San Martzialera jaitsi eta, azkenean, Akiñabeiko errotara helduko dira.

ELGETA

LIBURU AURKEZPENEA

'Elgeta' trikitilariaren liburua aurkeztuko du Koldo Izagirrek

Joseba Tapiak 'Elgeta' trikitilariaren garaiko zenbait pieza joko ditu aurkezpenean

OXEL EROSTARBE

Datorren egunenean, hilaren 31n, iluntzeko zazpitan, *Elgeta, sasiaren sustriak* liburua aurkeztuko du Koldo Izagirre idazleak liburutegian.

Jazinto Rivas *Elgeta* trikitilari handia izan zen, oso teknika ona ei zeukan, eta hura izan zen gaurko trikiti maisuen maisu. Hark erantsi zizkion bi botoi trikiti zaharrari, gaurkoa hark sortu ei zuen.

Trikitian mitoa da *Elgeta*. Haren bizipenen inguruan liburua argitaratu du Koldo Izagirrek, eta horietaz jardungo du Elgetan egingo duen aurkezpenean.

Goimendiko Intxuzabal baserrian bizi izan zen Jazinto Rivas. Premutzako maiorazgotzako hartu izan zuten baserrian eta bertan bizi izan zen Eibarrera joan aurretik. Bergaran eta Eibarren *Intxuzabal* deitzen zioten, baina gainerako herrietan, *Elgeta*. Hala ere aurkeztu ohi zuen bere burua maiz. Baserriz baserri ibili zen trikiti eskolak ematen. Gaurko

maisuetako askok harekin ikasi zuten.

Sarritan esan izan da film bat egiteko moduko bizitza izan zuela *Elgetak*. Eta hori hala izan zela argi geratzen da liburuan.

Liburuak CD bat ere badakar, *Elgetari* egin zioten grabazioa, hain zuzen. Hark bizi izandakoak irakurri ostean, haren garaiko doinuak entzuteko aukera ere izango da. Izan ere, Joseba Tapiak trikitilariak garai hartako zenbait pieza joko ditu. Joseba Tapiak *Agur Intxorta maite* lanean batu ditu 36ko Espainiako gerrari aipamen egiten dioten kantuak. Doinu horiek *Elgetak* jotzen zituenaren oso antzekoak dira, harekin ikasi zutenei entzundakoak dira-eta.

GAUR ILUNTZEAN, OLIO BILKETA

Hileko azken barikua denez, erabilitako olioak jasoko dute Maya ingurumen taldekoek gaur iluntzean, arratsaldeko seietatik zazpietara.

Jasotzen duten olioak enpresa batera eramaten dute, gero enpresan bertan birziklatzeko.

NEPAL ANNAPURNA 8.091 m.

“AZKEN ZORTZIMILAKOIA”

Datorren udaberrian Alberto Iñurrategi saiatuko da Anna-purnako gailurra zapaltzen. Zortzimilatik gorako hamalau tontorretatik falta zaion bakarra.

Banoatik egitasmo horren partaide izan zaitez

proposatzen dizugu, Himalaiako lekuri politenetako batetik oinarritzko kanpamendurainoko trekkinga eginez.

TALDEA: 6 eta 16 pertsona bitartekoa + gidaria.

EGUNAK: Apirilaren 4tik 20ra.

Apirilaren 20tik maiatzaren 6ra.

PREZIOA: 1910 €

Honetaz gain, beste bidaia eta trekking batzuk prestatu ditugu Aste Santuari begira. Moroko, Libia, Mauritania, Turkia, Egipto, Iran, Yemen, Senegal, Mali-Burkina Faso, Etiopia, Damavandeko igoera (5.671 m.), Atlaseko trekkinga...

Talde murriztuetan eta etxeko esperientzia handiko gidariekin murgiltzen gara detaileak zainduz.

Informazioa eskatu, hemen gaituzu:

banoa

Ledesma, 10 bis, 2.- 48001 BILBO
Tfnoa: 94 424 0011 - faxa: 94 423 2039
e-maila: bio@banoa.com

ARETXABALETA KEPA URRAK 10 URTE KARTZELAN

ARRASATE HEZKUNTZA

Kepa Urrak kartzelan 10 urte beteko dituela eta, ekitaldiak antolatu dira

AMAGOIA LASAGABASTER

Urtarrilaren 29an, Kepa Urrak 10 urte beteko ditu kartzelan. Hori dela eta, Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak eta Aretxabaleta Askatasunak hainbat ekintza antolatu dituzte datozen asteotarako. Ekitaldien helburua da Kepa Urraz gogoratzea eta, bide batez, euskal presoan egoera eta dispersioa salatzea.

Kepa, gaur egun, Galiziako Curtis espetxean dago, Euskal Herriatik 763 kilometrora. Eta lehenengo ekintza haraino joatea izango da. Horretarako, autobusa antolatu da. Hala, izena eman duten guztiak egubakoitz gauean irten eta zapaturako Curtisen izango dira. Bidaia nahiko sinbolikoa izango da. Izan ere, ez da egongo aukerarik kartzela barrura sartzeko. Hala ere, kanpoaldetik herritarrek euren elkartasuna adieraziko diote Kepari ekintza horre-

kin. Baina ez da bidaia hori ondorengo egunetan egingo den ekitaldi bakarra. Kartelada mugikorak, hitzaldia eta kontzertu bat antolatu dira. Bukatzeko, otsailaren 2an, eskualdeko manifestazioa eta afaria egingo da.

DISPERSIOA ETA GOSE GREBAK

Kepa Urra hainbat kartzelatan izan da azken 10 urteotan. 1992an atxilotu zuten, eta, harrezkero, torturaz gain, dispersioa ere bizi izan du. Madrilgo Alcalán eta Valdemoron, Cádizeko Puerto II-n, Basaurin eta Langraitzen izan da. Gaur egun, berriz, Galiziako Curtisen dago.

Bide luze horretan hainbat gose greba egin ditu Kepa Urrak. Luzeena atxilotu zuten urtean egin zuen. Orduan, Puerto II kartzelan 26 eguneko baraualdia egin zuen. Azkena, berriz, Alcalá Mecokoa izan zen, eta Kepak 15 egun iran zuten ezertxo jan gabe.

Zertzelada

Antolatutako lehenengo ekintza Kepa Urrari bisita egitera joatea izango da, Curtisera. Hala ere, bidaia sinbolikoa izango da. Ez da aukerarik egongo kartzela barrura sartzeko.

LEINTZ GATZAGA

Ikasle txikiak Eskoriatzara joaten dira, hilean behin, eskolak hartzera

AINTZANE GARDOKI

Luzaroan, eskola itxita egon da herrian. 2000. urteko irailean, 25 urteren ondoren gutxienez, atek ireki zituen herriko eskolak umeak jasotzeko. Guztira bi eta lau urte bitarteko zazpi ikasle ekin zioten. Gaur, berriz, zortzi ikasle dihardute. Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxeak hartu zuen bere gain herriko eskolaren ardura.

Joan den ikasturtean, herriko eskolan bertan hartu zituzten eskolak. Aurtengo ikasturtean aldiz, gurasoei, hilean behin, Eskoriatzara joateko aukera eman zitzaion. Batzuk alde eta beste batzuk kontra azaldu baziren ere, urriaz geroztik, hilean behin Eskoriatzara joaten dira ikasle txikiak, egun osoan eskolak hartzera. Helburua da integrazioa eta beste ikasle batzuekin harremanak sendotzea. Bestalde, astelehen arratsaldeetan ere Eskoriatzara joaten dira, psikomotrizitate lantzeko. Eta egun berezietan ere -Inauteriak, danborrada edo Olentzero kasu-, Eskoriatzako lagunekin batzen dira.

ESKORIATZA

AXTROKI EUSKARA ELKARTEA

Euskara elkartearen inguruko jardunaldietan izan da Axtroki

Euskara elkartearen kudeaketa izan da aztergai

MIRARI ALTUBE

Topagunea Elkarteak euskara elkartearen kudeaketa aztertze-ko jardunaldiak antolatu zituen Gernikan. Han izan zen Eskoriatzako Axtroki ere.

Euskal Herriko euskara elkarte gehientsuenak batzen dituen Topagunea Elkarteak euskara elkartearen kudeaketaren inguruko jardunaldiak egin zituen Gernikan joan den aste bukaeran. 100 lagunetik gora batu ziren han, tartean, Axtroki euskara elkarte-ko kideak.

GAI UGARI ETA ABERASGARRIAK

Hainbat gai jorratu ziren egubakoitzean eta zapatuan Gernikan. Argi geratu zen, gainera, enpresa itxura hartzen ari diren elkar-

teen eta elkarte txikien arteko tar- tea handituz doala. Axtrokiko kideek ere, jardunaldien ostean egindako hausnarketan, dinamizatzailer baten beharra sumatu dute. Hortaz, aurrerago aztertze- kotan geratu ziren.

HAMAR URTEKO IBILBIDEA

Eskoriatzako Axtroki euskara elkarteak hamar urte bete zituen iaz. Andoni Bengoa presidentearen esanetan, gorabehera handiko ibilbidea izan da: "Hasieran indartsu hasi ginen, baina ondoren, desagertzekotan ere egon ginen. Horregatik proiektu xumeak aurrera eramatea erabaki genuen". Aurrera eramantzen dituzten proiektuen artean, *Ze barri?* aldizkaria, ludoteka eta Goienan sartzeko pausoa daude. Kultura arloan ere lan dezente egin dute.

GoiHata

翻訳・通訳

Traducciones
Translations

Übersetzungen
Traduction

Badakitzu zer jarten dauen hor? Hortarako gaz.
Itzulpenak hizkuntza guztietan.

Araba Etorbidea 3-2. Eskatu Eraikina
943 79 25 75 • Faxa: 943 71 21 25
E-maila: info@goihata.com • http://www.goihata.com

20500 ARRASATE
(Gipuzkoa)

ARAMAIO

OSOKO BILKURA

Pablo Ibarri elkartasuna adierazi diote Aramaion

Udalbatzarrak mozioa onartu zuen

UBANE MADERA

Eguaztenean, udalbatzarrak Ameriketako Estatu Batuetan hiltzera zigortu duten Pablo Ibarri elkartasuna adieraztea onartu zuen. Mozioa landu zen horretarako. Heriotza-zigorra ere gaitzetsi zen mozioan. Hori baino lehen, baina, Batasuneko zinegotzi Amaia Aspek gogorarazi zuen orain dela hiru hilabete eskaera bat egin zitzaioela Udalari, presoak bisitatzeko garraioa ordaintzeko, eta

oraindik ez dutela erantzunik jaso. Alkateak erantzun zuen eskaera aztertzen ari direla. Horrekin batera, bestelako gaiak ere landu zituzten. Esaterako, esker oneko hitzak izan zituen Udalak Goikoerrota karobia berritu zutenendako. Era berean, jakinarazi zuen, epe luze- ra, herriko gainerako karobiak berritzeko egitasmoa abian ipintzeko asmoa duela. Bestalde, alkatea izendatu zuten Mairuelegorreta Landa Lurraldeko Elkarte-ko kide izateko.

Herri eskoletan plangintza berria ezarriko dute datorren ikasturtean

Jaiotze tasa baxuaren eta LOGSE erreformaren ondorioa da

UBANE MADERA

Arrasateko herri eskoletan plangintza berria ipiniko dute abian datorren ikasturte- tetik aurrera. Horrela, herri eskolak bateratu egingo dira.

2002-2003 ikasturtean, Arrasateko herri eskolen antolaketa goitik behera aldatuko da. Herri eskola guztiak batu eta ikasleak adinaren arabera banatuko dituzte. Zera gura dute: datorren irailetik aurrera, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bakar- ra eratzeko, bi eraikinetan banatuta.

Horrela, Haur Hezkuntza (bi eta sei urte arteko umeak) San Andresko eraikinean kokatuko da, eta Lehen Hezkuntza (sei eta hamabi urte arteko ikasleak), Erguingo eraikinean. Hori bai; salbuespen moduan, datorren ikasturtean, behintzat, Musakolako herri eskolan bi eta hiru urteko umeak izango dira, hain justu, antzinako San Antolin egoitza. Ondorioz, irakasleen lehen- go eraikina hutsik geratuko da.



ARTXIBOA

Umeak adinaren arabera banatuko dira herri eskolan.

Edozelan ere, Haur Hezkuntzako ikasleak San Andresko eskolan hasi aurretik, konponketa lanak egin behar dituzte. 180.000 euro pasatxoko inbertsioa egin beharko dute lan horietan (30 milioi pezeta inguru).

JAIOTZE TASA BAXUA

Arantza Mendarozketa Erguin herri eskolako zuzendariak Arrasate Irratiari adierazitakoaren arabera, plangintza hori ezartzeko arrazoiak dira Arrasaten dagoen jaiotze tasa baxua eta LOGSE erreforma.

BEHERAPENAK!

Gizonak
Emakumeak

JANTZIAK

Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12

Ibai-arteren
bazkide



Zabalik



JOXEMARI MUXIKA

Hurbileko informazioaren premia

Eguneroko prentsa idatzia, aldizkariak, telebista eta irrati aztertzen ibili diren ikerlariek atera duten ondorioa komunikabide-ek euskarari ematen dieten lekua oso urria dela da. Informazioa euskara hutsean egiten duten egunkariak, te-
lebistak eta irratiak badi-
ra, noski. Ezagunak ditugu. Baina erdarazko-
ek duten zabalkundeare-
kin alderatuta, euskaraz-
ko egunkari eta te-
lebistak duten zabalkunde-
a, orokorrean, %5aren
azpitik geratzen da. Irrati
emisioak zerbait gehiago
dira. Euskal hiztunak eta
erdal hiztunak kontuan
hartuta, eta komunikabi-
deetan bakoitzaren
hizkuntzak duen lekua
begiratuta, euskaraz
egindako informazioa
hiztunen proportzioan
askoz txikiagoa da.

Bestalde, hurbileko informazioa faltan sumatzen da, hutsune handia dago, eta horri heldu diote herritarrek.

Herri komunikabideek bi gabezia horiei erantzuteko modu berezia garatu dute, eremu hurbileko informazioa euskaraz emanez. Beraz, arlo horretan diharduten erakundeek hurbileko informazioa emateko erabakia hartzea, ez da kasualitatea. Eta ezagun batek esaten zidan bezala, idazlearen burutape-
nak edo iritziak ez du zerikusirik handirik informazioarekin eta askoren-
tzat ordezkatze jasanezi-
na gertatzen omen da.

Euskal hiztun bezala ez dugu aukera berdintasunik, beste hizkuntzatan daudelako ia komunika-
bide guztiak. Euskal hiztunok eleanitzak garenez eta horri esker, baina behartuta, gure premiak erdaretara joaz ase behar izaten ditugu.

Garatzen ari diren herri komunikabideak indartzea eta informazio arlo berriak ahalbidertzea da erronka.

GOIENKARIAk Argia saria 2002 jaso du, prentsa idatziaren sailean

GOIENKARIAk, Debagoiene-ko astekariak, Argia saria 2002 jaso du, prentsa idatziaren atalean. Sari banaketa gaur eguerdian egin da Lasarte-Oriako jatetxe ezagun batean.

Aurtengo Argia sarietako bat, prentsa idatziari dagokiona, GOIENKARIAri eman diote. Debagoieneko astekariak gain, beste hauek ere saritu dituzte: irratiari, Irulegi Irratiko Pantzo Hirigaray esataria; te-
lebistan, ETBko *Sorginen Laratza* saio-ko Anjel Alkain aktorea; Sare-ko Argia saria, Elhuyar zientzia elkartearen *zientzia.net* web-
guneari; publizitatearen alor-
rean, BBK aurrezki etxea; eta
merkezimenduzko saria Euskal
Herriko Bertsozale Elkarte-
rendako izan da.

GOIENKARIAri dagokio-
nez, "eskualde bateko herri
aldizkariak egunkari forma-
tuan biltzen dituen proiektu
berritzailea dela" azpimarratu
du epai mahaiak, bestalde, dise-
inuari eta edukari dagokienez,
Debagoien osoarendako "inte-
grazio pauso handia izan dela
GOIENKARIA". Era berean,
Goiena komunikazio proiektu-
aren barnean kokaturik, 2000.
urte amaieran abiatu zenez
geroztik, "potentzialtasun han-
dia eskaintzen duen zerbitzua
dela". Azkenik, proiektuaren
bultzatzaileek, "GOIENKARIA
astekariaren sorrerako izpiri-
tuari utsiz, urratsak neurrian
ematen jakin dutela, proiektu
handizale hartara iristeko".

Argia sariaren XIII. edizioa izan da aurtengoa. Hain justu, 1989. urtean ekin zioten sariak banatzeari. Ordurako, komu-
nikabide ezagunak hasiak ziren
zenbait sari banaketa antolatzen



GOIENKARIA aldizkari berritzailea dela azpimarratu dute

eta euskal prentsan ez zegoen antzekorik. Egoera horrek bultzatu zituen *Argia* astekariko-
ak ekimen hori abiatzera. Haien
esanetan, "egitasmo berriak bul-
tzatzen lagunduko duen saria da
Argia saria. Asmo eta animu
garbienarekin banatzen dira".
Sariak sinbolikoak dira

Anjel Alkain aktorea eta *zientzia.net* web gunea ere, sarituak

—Antxon Mendizabal eskultore oiartzuarraren plaka bat— eta komunikabide, enpresa edo talde-
en artean banatzen dira.
Arrasate Press astekariak eta *Arrasate* Te-
lebistak ere jasoa dute *Argia* saria, hain justu, 1989. urtean aldizkariak, eta 1996.ean te-
lebistak.

Arrasate Press eta *ATB* ere sarituak izan dira beste urte batzuetan

Goienako prentsa arloak azken hilabeteotan emandako urratsak aitortu ditu *Argia*-
k sari horrekin: batetik, GOIEN-
KARIAren edizio komuna abia-
raziz, bestalde, ibarreko herri
aldizkariak formatuz aldatu,
denak asteroko martxan ipini,
eta herrietako edizioak sortuz.

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Eztabaida

Athleticek eta Realak orain dela pare bat aste San Mamesen jokatu zuten euskal derbiak bazterrak harrotu ditu: bi taldeotako zuzendaritzak batzordeen eta jokalarien arte-

an anaikidetasuna da nagusi, edo hori ematen du behintzat. Zaleen arteko harremani dagokienez, oster, gauzak okertu direla esan genezake. Realarekiko Athletic zaleek San Mame-

sen erakutsitako jarrera dela-eta, haserre daude txuriurdin zaleak. Katedralean entzundakoaren arabera, bizkaitarrek bigarren mailan nahi dituzte gipuzkoarrak. Benetan hala da?

Athletic zaleek Real bigarren mailan ikusi nahi dute?

Hori nahi dutenak ez dira Euskal Herrirako eredu



BITTOR
ARRIARAN
Bonba Taldie-koa

Argi dagoena da San Mamesera joaten diren Athleticen jarraitzaileek oso argi utzi zutela pasa den derbian Real non ikustea nahi duten. Nik ez dut uste jarraitzaile horiek direnik Athleticen jarraitzaile bakarrak, eta ziur nago jende asko dagoela, talde bilbotarreko jarraitzaile izanda ere, ez duela talde txuri-urdina bigarren mailan ikustarik nahi. Eta jende horrengatik poztu egin behar dugu, guztiak San Mamesen izan zirenak bezalakoak ez direlako, alegia.

Edo behintzat, San Mamesen izan ziren batzuk bezalakoak ez direlako. Eta zergatik ez esan, horrelakoak Anoetan ere badaude. Azkeneko derbian gertaturikoa penagarria eta negargarria izan zen (Anoetan ere gertatu izan da horrelakorik). Gauza bat da "a segunda, a segunda" entzutea, eta beste bat txistua bota, biraoak entzun, kolperen bat jaso eta abarrekoko jasatea. Hori Madrilen edo Pancorbotik behera jasan behar izan dugu, baina Bilbon edo Donostian?

Badirudi, futbola dela-eta, asko zoratu egiten direla, eta gai dira nor eta nongoak diren ahazteko. Euskal Herrian, beste gauza askotan bezala, futbola era ezberdinean bizi izan dugu beti. Beti izan da elkarrekin egoteko motiboa, eta harro sentitu gara gure herriarekin, gure futbol taldeekin, eta derbi bakoitza jai bat izan da beti. Bi aste lehenago, Euskal Selezioaren partiduan, San Mames eredu garbia izan zen gure taldeak elkarrekin jokatzeko sentitzen duguna adierazteko. Beharbada partidu hartako jarraitzaileak ez ziren derbian izan, derbian izan zirenek ez dituzte-eta ideiak gutako batzuek bezain garbi. Nire mespretxu handiena dauka derbietan horrela portatzen denak, bai San Mamesen eta baita Anoetan ere. Horrela beraien taldeko jarraitzaile sutsuak direla usteko dute, baina ez dira herri honetako eredu. Guretako futbola beti izan da herriok batzeko aitzakia bat. Ez zaitezte kontrakoa lortzen ahalegindu, "España va bien" esaten duten horiei lagundu besterik ez diezue egiten-eta. Alferrik zabiltzate, Real inoiz ez da bigarren mailan egongo-eta. Lastima! A, eta argi izan Realeko jarraitzaileek azken hiru denboraldietan euskal taldeak maite dituztela argi erakutsi dutela. (Galdetu bestela Osasunari edo Alavesi).

"Nire mespretxua dauka derbietan hala portatzen denak: San Mamesen eta Anoetan"

Athletic zale asko lotsatuta irten zen Katedraletik



ANDER
TXINTXURRETA
ETBko kazetaria

Joan den urtarrilaren 12an, Athletic eta Realaren arteko derbian, San Mamesen gertatu zena ikusita, ondorio garbia da: jarraitzaile zurigorri ugari bigarren mailan ikusi gura du Realak. Ez denek, ordea; milaka Athletic zale lotsatuta irten baitzen Katedraletik; pozik, euren bihotzko taldeak garaipena eskuratu zuelako, baina zeharo lotsatuta, San Mameseko publikoaren zati handi batek iraindu egin zuelako Realak. Harrigarria bada ere, talde txuri-urdinarekiko mespretxua erakutsi zutenenak batzuek Euskal Herriko selezioaren elastikoa zeramaten soinean. Ez ziren konturatu, antza, egun hartan Athleticen aurka jokatzeko ari zen taldea ere Euskal Herrikoa dela.

Historia liburuek diotenez, bi taldeetako jarraitzaileen arteko lehia aspalditik datorren kontua da, XX. mende hasieratik, hain zuzen ere. Zoritzarrez, lehia hutsa beharko lukeena gorroto bihurtu da azken urteotan. Neroni izan naiz behin baino gehiagotan ezinikusi horren lekuko. Esate baterako, 80ko hamarkadan Atotxan txaloz hartzen ziren Athleticen porrotak, baita Real Madrilen kontra jasandakoak ere. Joan den hamarkadan are gehiago gaiztotu zen giroa, batez ere, talde zurigorriak Joseba Etxeberria fitxatu ostean. Denboraldi hartan, Anoetan jokaturiko norgehiagokan era guztietako irainak entzun behar izan zituzten Athleticen jokalariek eta jarraitzaileek. "A segunda, a segunda" oihiak ere etengabeak izan ziren, zurigorriak bigarren mailara jaisteko arrisku bizian zeuden-eta.

Horrenbestez, zaila dirudi bi taldeetako jarraitzaileen arteko harremanak bideratzea, baina ahaleginak egin beharko genituzke behintzat. Izan ere, bada oraindik itxaropentsu izateko arrazoirik. Horra hor, adibidez, Euskal Hintxak izeneko taldeak lehen mailako euskal derbi guztietan antolatzen dituen kalejirak. Horrelako ekimenak txalotzeko modukoak dira, eta komunikabideetan oihartzun handiagoa eduki beharko luke. Ildo horretan, derbiaren egunean Bitor Alkizak esan zuen bezala, kazetarion lana oso garrantzitsua da. Nolanahi ere, denoi dagokigu txuri-urdinen eta zurigorrien arteko elkartasuna bultzatzea. Izan ere, imajinatzen duzue Athletic-Real Real-Athletic gabeko denboraldirik? Nik ez, behintzat.

"Imajinatzen al duzue Athletic-Real Real-Athletic gabeko denboraldirik? Nik ez, behintzat"

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAI

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Euskadiko sozialistek zein bide aukeratu beharko lukete?

Gora eta Behera

ASTINDU ALDIZKARIA



Bergarako *Astindu* aldizkari alternatiboari esker, ametsak errealitate bihurtu dira. Kontrainformazioa zabaldu eta bultzatu egiten du *Astindu* aldizkariak, Bergarako kolektiboen aldizkariak.

EBROKO PLAN HIDROLOGIKOA



Itoizko urtegia eraiki dute, nahiz eta Auzitegi Gorenak legez kanpo deklaratu. Hala eta guztiz ere, lanak aurrera doaz: urtegia eraikita dago eta, orain, Nafarroako ubidea eraikitzen dihardute. Eta, bertako zuzenak guztiak botatzen ari dira, Nafarroako Gobernuak kideak diruz aberastu daitezten.



IÑIGO
HERRERROS
Bergarako gaztetxekoa

Koplak

Bailarako hiltegia

Denok desio dugu argitu dadila, hiltegiak lepoan daukala puntilla.

Barrero ete datoz hiltze arazoak, lehengo isiltasunak ta mokil mazoak?

Larri daude artzaiak zein baserritarrek, gaitza ezin osatu botika bakarrak.

Animaliak hazten lanik hartu barik, dirua dugu eta ekarri kanpotik.

Hemengo azienda joan leike bilduta abiada handiko trenean sartuta.

Hiritartzen goazen bailara honetan, galdu beste irabazten ete da bidetan!

ION IÑAKI IZARZELAIA

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berzibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolnaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena
Komunikazio Zehitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Aurrezki Gorakorra

EUSKADIKO KUTXA

BOSGARREN URTEA

%4,50

LAUGARRREN URTEA

%4,00

HIRUGARREN URTEA

%3,75

BIGARREN URTEA

%3,25

LEHEN URTEA

%2,50

% 3,60 UTB

Zure interesak hazi egingo dira... Gora... Eta gora...

Interes-tasa urtero igoko dela bermatzen duen eperako gordailua. Euskadiko Kutxan badakigu zer-nolako eragina duen merkatuaren egungo egoerak inbertsioen errentagarritasunean. Zure kezak gureak ere badira. Eta horregatik, zure aurrezkiei beti etekinik handiena ateratzen lagundu nahi dizugu. Asmo horrekin sortu dugu Aurrezki Gorakorra. 5 urterako gordailu honek, interes-tasa urtero igoko dela bermatzen du, nahiz eta merkatuan interes-tasek behera egin. Zure ekonomiak ziurtasun osoz egin dezan gora.

AURREZKI GORAKORRAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Epea: 5 urte.

Gutxieneko zenbatekoa: 6.000 € (998.316 pta.).

Interes-tasak: lehen urtean %2,50; bigarrenean %3,25 hirugarrenean % 3,75; laugarrenean % 4,0; bosgarrenean % 4'50; UTB % 3'60.

Interesen likidazioa: sei hilean behin.

Urtero dirua gasturik gabe ateratzeko aukera: formalizazioaren urtemugaren ondorengo 25 egunetan.

Fiskaltasuna: interesak kapital higigarriaren errendimendutzat hartzen dira, eta % 18ko atxikipena dute kontuan.

Eskaintzaren iraupena: 60 milioi eurora iritsi arte.

ZURE DIRUA BLOKEATU GABE

Zure aurrezkiak 5 urtez geldirik eduki beharrik izan ez dezazun, urtero 25 eguneko epea emango dizugu, dirua askatasun osoz eta gasturik gabe eskura dezazun.

INFORMAZIO GEHIAGO

EAEko Euskadiko Kutxaren sukurtsal-sarea
901 333 444.

15 egun emango dizkizugu eragiketa egin ostean, hausnartu eta nahi baduzu bertan behera uzteko.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin elkarlanean

Mondragon Unibertsitate-
ak sortutako ikertegia da
Praktiker. Era guztietako
erakundeak eraldatu eta eguneratzea
du helburu. Estatu Batuetan ezarri-
tako figura juridiko bat, ESOP izene-
koa (Langileek Akzioetan Parte Har-
tzeko Plana), Euskadin zelan aplikatu
daitekeen aztertze jardunaldiak
antolatu ditu Praktikerrek. Ikertegi
horretako zuzendari Luxio Ugartek
(Oñati, 48 urte) eman dizkigu jardu-
naldion gaineko azalpenak.

ENEKO AZKARATE

Enpresa berri samarra da Praktiker.

Orain dela bi urte onartu zen MUKo Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean ikerkuntza helburu duen kudeaketa unitatea abiatzea. Helburua da enpresak autokudeaketaren bidean ipintzen laguntzea.

Edozein motatako enpresak?


Bai; enpresendako baino gehiago, erakundeendako egiten dugu lan Praktikerren. Hau da, industria, lantegi bat, unibertsitate bat, ikastetxe bat edo komunikabide enpresa bat izan daiteke. Enpresa edo erakunde horiekin lankidetzan jarduteko hitzarmenak sinatzen ditugu: guk gure esperientzia aplikatzen dugu enpresa horietan, ikerketa eginez. Horren trukean, diru kopuru bat jasotzen dugu. Horixe da gure finantzaketa modu nagusia, baina Jaur-laritzak ere ematen dizkigu dirulaguntzak. Ikerketak enpresekin batera, lankidetzan, egiten ditugu.

Eta zelan gauzatzen da lankidetzatza?

Enpresak edo erakundeak pertsonak osatzen dituzte. Gure ustez, pertsona horiek parte hartu behar dute enpresetan edo erakundeetan, maila guztietan, gainera, baldin eta autokudeaketara eroan nahi baditugu enpresok edo erakundeok. Eta, pertsonak parte har dezaten, prozedura eta erreminta egokiak behar ditugu. Pertsonen parte hartzearen bidez, enpresen kudeaketa autonomoa lortu nahi dugu. Kooperatibetan egin dugu lan, batez ere, eta kooperatibetan, langileak enpresari eta langile dira. Hori kontuan izanda, ardurak eta esku bideak garbi edukita, gure printzipioak erremintetan aplikatzen ditugu, betiere enpresa autokudeaketara eroanaz. Baina zer da autokudeaketa? Enpresak berak jakin behar du berarendako autokudeaketa zer den. Prozesu bat da, ez da bukatzen.

Dagoeneko lanean diharduzue enpresa batzuetan, ezta?

Bai. Geroago eta joera zabalduagoa da enpresetan kudeaketa erremintak eta beste prozedura batzuk ezartzea: kontrolekoak, produktibitatekoak... Baina enpresetan konturatzen hasi dira erreminta horiek aplikatzen hasi bai, baina denborarekin, jausten joaten direla. Sarritan ez dute jakiten zergatik izaten den hori. Guk egindako ikerketen arabera, prozedura horiek ezarri dituzten enpresa gehienetan, %70ean, hain justu, prozedura horiek desagertu egin dira edo gelditu egin dituzte. Eta gure galdera da: zergatik gertatzen da hori? Enpresa bat eredu batetik bestera eraldatzeko, enpresa horretako balioak aztertu eta erremintak sortu beharko



JUAN MANUEL BERRUETA

Luxio Ugarte

PRAKTIKER IKERTEGIKO ZUZENDARIA

“Enpresak autokudeaketaren bidean ipintzen laguntzeko erremintak garatu ditugu”

ESOP

“Langileek Akzioetan Parte Hartzeko Plana hemen zelan aplikatu daitekeen aztertu nahi dugu, gizarte ekonomiak beste aukera batzuk eskaintzen dituelako kooperatibetatik kanpo”

LANGILEAK AKZIODUN

“ESOP figurak aukera ematen du pausoka iragaiteko Sozietate Anonimo konbentzional batetik langileek parte hartzen duten sozietatera”

ditugu. Ardurak hartzeko, langilea lehenbizi konbentzitututa egon behar da eta eraldatzeko prest. Erreminta batzuk aplikatzen hasi gara dagoeneko eta beste batzuk prestatzen dihardugu. Coprecin, Ederlanen, Ikerlanen, Zorroagako erresidentzian... lanean hasi gara. Gehienak kooperatibak dira, baina gure erremintak MCCkoak ez diren beste enpresa edo erakunde batzuetan ezartzeko prest gaude.

ESOP figura aztertze eta Euskadin zelan aplikatu daitekeen aztertze jar-

dunaldiak antolatu ditu Praktikerrek.

Eusko Jaur-laritzari jakinarazi genion egokia izango litzatekeela gizarte ekonomia aztertzea. Jakina, kooperatibismoa gizarte ekonomiaren barruan dago, baina munduan beste esperientzia batzuk ere badaude eta gizarte ekonomia oso aurreratua dago hainbat tokitan. Egia da esperientziarik gogorrena, eta utopia hori egiaztatzea heldu dena, hemengo kooperatibetan esperientzia izan dela. Orain, ESOP figura, hau da, Langileek Akzioetan Parte Hartzeko Plana, hemen

zelan aplikatu daitekeen aztertu nahi dugu. Zergatik? Gaur egun, MCC apurka-apurka mundura zabaltzen ari da, han eta hemen enpresak sortzen edo bultzatzen ari da. Eta, jakina, gure eredu munduko beste toki batzuetan zelan aplikatu daitekeen pentsatu behar dugu, kontraesanik ez izateko. Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Produktu Gordinaren %6 gizarte ekonomiako enpresek sortzen dute. Portzentaje horren barruan kooperatibak eta Sozietate Anonimo Mugatuak daude sartuta. Sozietate mota horiek eta kooperatibak eredu gogor samarrak dira, eta ESOP horrek, ostera, eredu kapitalista hutsetik, pixkanaka-pixkanaka, gizarte ekonomiara pasatzea ahalbideratzen du. Hau da, langileak enpresen jabea hartuz doaz apurka-apurka, akzioak erosita, eta erabaki organoetan ardurak hartuz doaz.

Azalduko dizkiguzu zeintzuk diren ESOPen ezaugarri nagusiak?

ESOPek aukera ematen du pausoka iragaiteko, Sozietate Anonimo konbentzional batetik, langileek parte hartzen duten sozietatera. Iragaite hori bermatzeko, bankuak mailegu bat ematen dio enpresari eta enpresak bere ohiko jarduerarekin amortizatzen du mailegu hori. Zerga-abantailak eskaintzen dizkie enpresari, jabeei, langileei eta finantza-erakundeari. Sistema hori oso atraktiboa izan daiteke enpresariendako. ESOP-enpresen %50 herentzia egoeren ondorio dira: enpresa errentagarri bateko jabea erretiratu egin nahi da eta ez du oinordekorik edo beste bazkiderik. Hortaz, enpresa langileei saltzen die. Beste %40 edo %45 enpresaren beste interes batzuek eragin dituzte: langileak akziodun bihurtzeko interesak edo zerga-abantailak aprobetxatzeko interesak, edo biek batera. Gainerako %5 edo %10 beste egoera batzuen emaitza dira: krisi egoera edo erosketaren areritsua hazi aurre egiteko. Esan beharra dago, ESOP sistema ezartzeko sindikatu batean afiliatutako langileei, enpresak negoziazio kolektiboetan jorratu behar duela gai hori.

Estatu Batuetan sortu zen figura hori, ezta?

Bai, hala da. ESOP, zuzenbide eta finantza-mekanismo gisa, Ameriketako Estatu Batuetan sortu zen, 1974an, eta legeria federal bidez ezarri zen. Bestalde, pentsa genezake iparramerikarra gizarte kapitalista hutsa dela. Baina hori badaude datu batzuk interesgarriak direnak. Esaterako, Estatu Batuetan 9.500 ESOP-enpresa baino gehiagok dihardute lanean. Eta enpresa horien artean, askok enpresaren zati handi bat langileen esku dute. Gutxi gorabehera, 10 milioi langile akziodun daude sartuta ESOPetan Estatu Batuetan, lanean ari den biztanleriaren %9. Hortaz, hemen baino gehiago. Batez beste, 105 langileko enpresak dira Estatu Batuetan ESOPen sartuak daudenak, baina askoz handiagoak ere badaude. Batzuk aipatzearren: Kroger, banaketa-sektorekoa, 170.000 langile; McDonnell Douglas, sektore aeroespazialekoa, 128.000 langile; TWA, airelineak, 28.000 langile; United Airlines, airelineak, 90.000 langile... Beste datu batzuk: 2.000 enpresak baino gehiagok dute ESOP gehiengoduna eta urtero 300 ESOP-enpresa sortzen dira.

Sistema arrakastatsua da, hortaz, Ameriketako Estatu Batuetan.

Bai, azterketa zorrotz askok frogatzen ei dutenez, enpresetan uztartzen badira ESOP bat eta langileek erabakietan parte hartzeko aukera, enpresetako lanpostuak eta lehiakortasuna areagotu egiten dira.

Noiz izango dira jardunaldiok?

MUren Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Eskoriatzan, urtarrilaren 31n eta otsailaren 1ean. Parte hartuko dutenen artean, gizarte ekonomian eta, oro har, ekonomian, industrian eta lan arloan adituak, kooperatiben federazioko ordezkariak... Ez dira jardunaldi irekiak izango.

Podiuma

Ismael Zubia | TENIS MASTERREKO IRABAZLEA |

Ismael Zubia 24 urteko oñatiarrak Debagoieneko tenis masterreko finala irabazi zion zapatuan Jorge Aranes bergararrari, 6-3 eta 7-6ko emaitzarekin. Berak eta Aranesek ondo baino hobeto ezagutzen dute elkar, biak azken finalerako protagonistak izan ditugulako. Joan zen urtean ere Ismael izan zen masterreko irabazlea. Aurtun Oñatin jokaturako bi txapelketak eta Bergaran izandako masterra irabazi ditu Ismaelek.

Zelako finala izan zen zapatuan Bergaran jokaturakoa?

Egia esateko, Jorgek eta biok ez genuen partidu onik jokatu. Ez dakit finala izateagatik-edo, nerbio-so samar ginen, baina kontua da ez zela jokaldi ikusgarririk izan. Nahiko partidu eskasa egin genuen. Hala ere, pozik nago. Denboraldi ona egin nuen iaz, eta masterra irabazteak ilusioa egin dit.

Azkenaldian Aranes eta biok zabilzate indartsuen Debagoienean.

Biok ere orain dela urte batzuk hasi ginen tenisean, eta momentuz badirudi ez dagoela erreleborik. Hala ere, laster jokalarik gazteagoak aterako dira. Oñatin, esaterako, gaztetxo ugari ari dira tenis ikastaroetan, eta gu baino hobeto gertatutako jokalariek azalduko dira epe laburrean.

Zapatuan aurtengo zirkuaitua aurkeztuko da Bergaran. Parte hartzeko asmorik, bai?

Bai. Tenisean jokatzeari *hobby* bat da niretako, eta



AINZANE IRIZAR

Zubiak Debagoieneko tenis masterra irabazi du azken bi urteetan.

“Gure bailaran sekula ez da izan tenis kulturarik, baina gaurko gaztetxoek aukera handiagoa daukate tenisean aritzeko”

“Sakea da teniseko jokaldirik garrantzitsuenetakoa, eta ikasteko eta erakusteko zailena. Asko praktikatu beharra dago”

oso gustura ibiltzen naiz inguruan antolatzen diren txapelketetan.

Tenisean, zer nolako maila dago Debagoienean?

Gure bailaran sekula ez da izan tenis kulturarik. Tenis pistak ere orain dela gutxi egin dituzte Oñatin eta Bergaran, eta hain instalazio gutxi egonda, zaila da tenis mailak gora egitea.

Klimak ere zerikusia du, pistak aire zabalekoak direlako. Hala ere, gero eta ikastaro gehiago antolatzen dira, eta gaurko gaztetxoek aukera handiagoa daukate tenisean aritzeko. Nik uste, hemendik gutxira igarriko da lan guzti horren emaitza.

Zu zeu zelan hasi zinen tenisean?

Niri beti gustatu izan

zait tenisa, baina mutikotan pilotan eta futbolean jokatzeko askotan ibilitakoa naiz, eta jokatzeari utzitakoan, squasharekin eta tenisarekin probatzen hasi nintzen, lagunekin. Teniseko entrenatzaile titulua atera nuen: lau urrats daude, baina Euskal Herriko lehenbizikoa bakarrik lortzeko aukera dago. Hurrengoak eskuratzeko kanpora irten beharra dago. Orain Jabi Balzategik Oñatin antolatzen dituen tenis ikastaroetan irakasle aritzen naiz, egunero ordu pare batez.

Zen adinetako jendea dabil ikastaroetan?

Zazpi eta hamahiru urte bitarteko 60 bat gaztetxo ari dira gurekin. Intereza badute, eta ziur naiz etorkizunean gure belu-naldikoak baino hobeto moldatuko direla erraketarekin. Bestalde, *Kirola euskaraz* programaren barruan, tenisak gero eta harrera hobetua izaten du udako ikastaroetan, Oñatin.

Tenisean, zer da zailena ikasteko?

Sakea, beharbada. Teniseko jokaldirik garrantzitsuenetakoa da, baina benetan zaila da ondo sakatzea eta sake ezberdinak egitea. Errebesa eta errebes-bolea ere erakusteko nekezak dira. Asko praktikatu beharra dago.

Zer nolako jokoa egitea gustatzen zaizu?

Erasoko jokoa egiten saiatzen naiz, sakea egin ondoren bolea bilatuz. Ez naiz atzean jokatzekoa. Hala ere, arerioaren jokoa kontuan izan behar da beti.

EDU MENDIBIL

Jonathan Pérez,
Gipuzkoako txapeldun

Real Sociedad taldean diharduen Jonathan Pérez atleta arrasatearrak urrezko domina erdietsi zuen pertika jauzian, Gipuzkoako Txapelketan. Pérezek bere markarik onena egin zuen: 4,75 metro. Hogeitauro atleta arrasatearrak berriro azaldu zuen Euskal Herriko pertikari onenetakoa dela. Orain, Euskadiko eta Espainiako txapelketak gertatzeari ekingo dio Pérezek. Espainiako Txapelketa Katalunian jokatu da, otsailaren 9an eta 10ean, hain justu ere.

ATZOKO TXAPELDUNAK

Jesus Aranbarri
Futbolaria

Jesus Aranbarri Atotxan ateratako argazkian.

Lehen mailara igo zen Realarekin, 1967an.

Golegilea, Realean eta Alavesen jokatu zuen.

Hainbat taldetan entrenatzaile aritu zen.

Jesus Aranbarri gol historiko bat egin zuen Realarendako 1967ko apirilean: txuriurdinak azken aldiz lehen mailara igo ziren orduan, Calvo Soteloaren aurka, Puertollan, bina berdindu eta gero: “Andoni Elizondo entrenatzaile zela, partidu hartan egin nuen debuta. Puntu bat nahikoa genuen, eta 2-0 galtzen joan ondoren, berdintzea lortu genuen. Binakoa nik egin nuen partidua bukatzeko 8 minutu falta zirela: Boronatek kórner bat atera zuen, eta atezainak baloia ukitu ondoren, penalti puntutik errematatu nuen. Giro aparta izan zen Puertollan. Handik bueltan, Gipuzkoako ia herri guztietatik igaro ginen eta sekulako harrera eskaini zigun jendeak”. Aranbarri sei denboraldi eman zituen Realean, eta erdiko aurrelaria izanik, gol dezente egin zituen. Gogoan du Atotxan Athletic egindako bat: “Bilbotarrak liga irabazteko ziren, eta lau jardunaldi faltan-edo, 2-1 irabazi genien. Bigarren gola nik sartu nion Iribarri, eta guri bota ziguten errua, ez zutelako liga irabazterik izan”. Realean aritu ondoren, Alavesekin fitxatu zuen. Lehenbiziko denboraldian, bigarren mailara igo ziren, eta hurrengoan 2. mailako goleatzaile onena izan zen Aranbarri. Taldeko kapitaina genuen, eta zortzi urtean jokatu zuen gasteiztarrekin.

Jokatzeari utzi ondoren, Alaveseko 2. entrenatzailea izan zen, Txutxi Arangurenekin eta Luis Artorgarekin. Lehen mailara igozko gertu izan ziren 1980ko hamarkadaren hasieran. Mondra eta UDA taldeetan ere aritu zen. Gaur egun Gasteizen bizi da. Hiru semeak futbolariak ditu eta futbolari gazteen ordezkarria da. /E. M.

“Lehen mailara igoera lortu genuen Puertollanoko partiduan giro aparta izan zen. Handik bueltan, sekulako harrera eskaini ziguten”

Jesus Aranbarri • Arrasate • 1948

Ibarreko pilota elkarteak, lehian

Martitzenean, Debarroko Pilota Txapelketaren hirugarren jardunaldia jokatu zen

Debarroko Pilota Txapelketaren barruan, Bergara-Arrasate eta Olalde-Aretxabaleta partiduak izan ziren martitzenean. Beheko aldeko multzoan, berriz, Ozkarbik Debako Euskal Jolas hartu zuen Elgetan.

Elgetarrak beheko aldeko multzoan ari dira, Euskal Jolas, Eibar eta Elgoibarko Lagunak taldeekin batera. Martitzenean, Ozkarbikoek kadete mailan 9-22 galdu zuten, eta gazte eta senior mailan irabazi egin zuten, 22-7 eta 22-1, hurrenez hurren.

Aloña Mendik ez du taldea osatzerik izan aurten. Debagoieneko gainerako taldeek multzo nagusian dihardute. Martitzenean, Bergarak Arrasateko taldea izan zuen bisitari Udal Pilotalekuan. Honako hauek izan ziren emaitzak: kadete mailan, Bergarak irabazi zuen (22-8); gazte mailan, Arrasateko bikotea nagusitu zen (4-22); eta seniorretan, Bergara gailendu zen (22-16).

Antzuolan, bestalde, antzuolarren eta aretxabaletarren arteko lehian izan genuen: kadete mailan, Antzuolak 22-1 irabazi zion



Agirre eta Uribarren arrasatearrak eta Larrañaga eta Iñarra bergararrak, martitzenean, kadete mailako partiduen aurretik.

Aretxabaletari; gazte mailako partidurik ez zen jokatu, Antzuolak bikoterik ez duelako; eta senior mailan, Aretxabaletak 22-

16 irabazi zuen.

Datorren martitzenean, Aretxabaleta-Bergara eta Eskoria-tza-Olalde partiduak jokatuko

dira. Elgetak Elgoibarko Lagunak taldeari egingo dio bisita.

EDU MENDIBIL

Kirolabur

DEBAGOIENA/KIROLA

Debagoieneko Kirol zerbitzuek diaz antolatutako kirol zirkuituaren sari banaketa eta aurtengo zirkuituaren aurkezpena egingo dira zapatuan Bergarako Udal Pilotalekuan, 12:00etan.

FUTBOLA/ARENAZA

Igor Arenaza futbolari aretxabaletarrak 2.B mailan ari den Motril taldean jokatuko du aurrerantzean. Joan den urtean, zazpi hilabetez lesionatuta egon zen, eta azaroan egin zuen berragerpena, Eibarrekin. Jokatzeko aukera gutxi zuela-eta, Granada aldeira joatea erabaki du Arenazak.

ATLETISMOA/ARRASATE

Arrasate Atletiko Taldeko Unai Sarabia lasterkari arrasatearra laugarren izan zen Gipuzkoako Txapelketan, 200 metroetako proban, 22.78 segundoko markarekin. Angel Rivera bergararra bosgarren izan zen (23.66 segundo).

SQUASH/DEBAGOIENA

Santos Aranburu zarauztarrak Debagoieneko squash masteerra irabazi zuen, zapatuan Arrasaten jokatutako finalean Julen Iriondo oñatiarrari nagusitu ondoren.

2.
Merkealdia
%40

rainoko deskontua
kioletako modan

%50
rainoko deskontua
kioletako oinetakoetan

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

Garlbai Etorbidea
ARRASATE

**DENOK PERFUMERIAS HERRI HAUTAN:****DONOSTIAN:**

- Fuenterrabia, 6 (osasun zentrua eta solariuma) – Bretxa Merkataritua Zentrua
- Mirakruz, 6-8 – San Franzisko, 2-1, Karmeneko Amabirgina, 7
- Easo, 12 (osasun zentrua eta solariuma) – Matia, 19
- Ongi Madrid pasealekua, 12 (solariuma) – Larratxo pasealekua, 22

HERNANI: Ispizua, 5**EIBAR:** Plaza Berria, 2**IRUN:** Argentinaren errepublika, 17 – Txingudi Merkataritua Zentrua**OLABERRIA:** Carrefour Merkataritua Zentrua**PASAIA:** Gure zumardia, 1**ERRENTERIA:** Segundo Ispizua, 10 (solariuma)**TOLOSA:** Nafarroa etorbidea, 14 (solariuma)**ZARAUTZ:** Gipuzkoa kalea, 14

Gure dendetan perfumeriako eta kosmetikako
marka gorenak aurkituko dituzu:

LANCOME – BIODERM – CHANEL – CLARINS – DUNHILL – CLINIQUE
AZZARO – ELIZABETH ARDEN – CALVIN KLEIN – HUGO BOSS – HERMES – CACHAREL
NINA RICCI – DONA KARAN – PALOMA PICASSO – BULGARI – ESTEE LAUDER
CAROLINA HERRERA – PACO RABANNE – LOEWE – ADOLFO DOMINGUEZ
RALPH LAUREN – KENZO – ANTONIO MIRO – ARMANI – TABAC – THIERRY MUGLER
INES DE LA FRESSANGE – CHRISTIAN DIOR – CERRUTI – GUCCI
LOLITA LEMPIKA – VITORIO & LUCCHINO – HELENA RUBINSTEIN

IREKITZE SUSTAPENA:

Edozein produktu erosita, prezioa edozein dela ere, **OPARIA.**

OPI BEZEROA IZATEAREN ABANTAILAK APROBETXATU

% 10eko DESKONTUA goi perfumeriako produktu guztietan



Honako txartela bete ezazu zure datuekin, eta gure edozein dendatara eraman.

ABIZENAK:

IZENA:

HELBIDEA:

P.K.:


HERRIA:

TELEFONOA:

JAIOTZA DATA:



GOIESKOLA



**Aniztasunarekin
denok irabazten dugu**

ESKORIATZA / GATZAGA: LUIS EZEIZA • **ARETXABAETA:** KURTZEBARRI L.H. / KURTZEBARRI B.H.I. • **ARRASATE:** ARRASATE HERRI ESKOLA / ARRASATE-ARETXABAETA INSTITUTUA • **ARAMAIO:** SAN MARTIN L.H. • **OÑATI:** ERREKALDE L.H. / ZUAZOLA LARRAINA B.H.I. • **BERGARA:** SAN MARTIN AGIRRE L.H. / IPINTZA B.H.I. • **ANTZUOLA:** HERRI IKASTETXEA L.H. • **ELGETA:** HERRI IKASTETXEA L.H.

Goieskola

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa osatzen duten 14 ikastetxeek proiektu komun bat eratu dute: GOIESKOLA. Gure ibarreko Euskal Eskola Publikoaren sarea osatzen du GOIESKOLAK.



Euskal Eskola Publikoaren sarea

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoaren sarea da GOIESKOLA. 14 ikastetxeek osatzen dute sare hau. Ikastetxe bakoitzaren egitasmo, baliabide, ezagutza, zerbitzu eta ahaleginak, besteekin konpartituz eta elkartuz jositako sarea da GOIESKOLA. Horregatik, emaitzak ikastetxeon batura soil gaitzen du eta, azkenean, ikasleak dira onuradun nagusiak.

Aniztasuna da GOIESKOLAREN zutaberik sendoen. Aniztasunean heziz, ikaslearen garapen soziala eta etiko-morala bultzatzen dira. GOIESKOLAREN sarea osatzen duten ikastetxeen bidez, haur eta gazteei eurak izateko, autonomiaz jokatzeko aukera ematen zaie, eta aldi berean, elkarlanean trebatzeko.

Aldatzen ari den gizartera egokitu

Gizarte honetara ondo moldatzeko hezi dezaten eskubidea dauka ikasleak. Horregatik da oso garrantzitsua eratu berri den sarea. Gainera, sare honek, aldatzen ari den gizartera hobeto egokitzeko eta sortzen diren behar berriei hobeto erantzuteko aukera eskaintzen du.

Hezkuntza ondasun publikoa da, eta kalitatea bermatzea ikastetxe publikoei dagokie. Horregatik heldu diote gure ibarreko ikastetxe publikoek erronka horri. Azken batean, Euskal Eskola Publikoa hobetu gura dute Debagoieneko ikastetxeek, eta erronka berri horri behar den moduan erantzuteko borondatea eta kemena erakutsi dute proiektu hau abiatzeko orduan.

Aniztasunaren baloreak bultzat

Helburu jakin eta garbiak ditu GOIESKOLA. Denontzako eta denon artean, hau da, guraso, ikasle eta irakasleen artean erabakitako kalitatezko hezkuntza bermatzea helburu horietako bat. Eskola ingurune sozial batean txertatuta dagoenez, herriko beste erakundeekin elkarlana bultzatzea da beste helburuetakoa.

Horretaz gain, gizartea anitza denez, aniztasunaren balore positiboak berreskuratu, aldarrikatu eta eskolara eraman gura ditu. Eta, ikaslea denez, ikaslearen onuradun nagusia, ikaslearen pentsaraz eta izaera ezberdinak errespetatu gura ditu, izan ere, zein jarrerak kritikotasunez aztertzen irakatsi da, denon eskubideez jabetzen irakatsiz.



Hainbat datu

Familiak:..... **2.417**

Ikasleak:..... **2.974**

Iraskasleak:..... **422**

Langile ez-irakasleak:..... **62**

Ikastetxeak:..... **14**

Eraikuntzak:..... **21**

Eskola eredu integratzailea

Etorkizuneko gizartea eraikitzen lagundu nahi du GOIESKOLAK. Horretarako, ikasle guztien partaidetzaren bermea eskaintzen du, egoera sozio-ekonomiko ezberdinak integratuz. Euskal Eskola Publikoan, guztiek dutelako tokia. Bestalde, ikaslearen ongizatea lortzeko, bere gaitasunak lantzen eta afektibotasunari erantzuten saiatzea du helburu GOIESKOLAK. Eta, neska-mutikoak pertsona osotu moduan gara daitezen, emakumezkoen zein gizonezkoen ekarpenak jasotzea bermatu gura du. Azkenik, kulturari garrantzi handia eman gura dio: euskal kulturaren garapena du helburu, beti ere, gureak ez diren kulturak ezagutuz eta integratuz.



PILAR ETXANIZ / ZUZENDARIA
ANTZUOLAKO HERRI IKASTETXEA

Asko daukagu irabazteko

Zer irabaziko du Antzuolako herri eskolak egitasmo honekin?

Proiektuak bi norabide dauzka: joanekoa eta etorrikoa. Emateaz gain, jasotzeko ere badaukagu. Besteengandik asko ikasi dezakegu egitasmo honi esker. Zergatik? Ibarreko beste ikastetxe publiko batzuen egoera eta esperientzia gurearen ezberdina delako gauza askotan. Gurea haur eta lehen hezkuntzako eskola da eta, hortaz, maila handiagoko ikasketak eskaintzen dituzten ibarreko beste ikastetxeetan islatuko da gure lana. Beraz, uste dut, guk ere irabaziko dugula GOIESKOLArekin.



ROSA MONDRAGON / GURASOA
ARAMAIOKO SAN MARTIN ESKOLA

Gure seme eta alabentzat ona

Gurasoen ikuspuntutik, zergatik izango da ona ikastetxe publikoen sarea?

GOIESKOLA sortu aurretik, hausnarketa prozesu sakonean murgildu dira ibarreko ikastetxe publikoak eta, azkenean, guztien sarea eratzea erabaki badute, denendako onuragarri izango da, ez daukat zalantzarik. Ikastetxeek beren ezaugarriak eutsiko diete eta modu autonomoan lan egiten jarraituko dute, baina hainbat egitasmo lankidetzan garatzeko aukera izango dute. GOIESKOLArekin gurasoek baino gehiago, eskolek eta, azkenean, ikasleek irabazi dute.



LURDES UGALDE / IRAKASLEA
OÑATIKO ZUAZOLA-LARRAÑA ESKOLA

Elkartuago sentituko gara

Bai zuri, irakasle zaren aldetik eta baita hezkuntzaren kalitateari dagokionez, zer onura ekarriko ditu GOIESKOLAK?

Inguruko ikastetxeekiko elkartuago eta gertuago egotea sentiaraziko digu; gure arteko elkarlana bultzatuko du, elkarrekin egitasmo hobe eta handiagoak lantzeko aukera emango digu... Bestalde, egunero jardunean sortzen diren arazoei batera aurre egiteko aukera emango digu, beste ikastetxe batzuetako proiektuak hurbiletik ezagutuko ditugu, administrazioaren aurrean egin beharreko eskarrietan indar handiagoa izatea ahalbideratuko digu...



IÑIGO LARRAÑAGA / IKASLEA
BERGARAKO IPINTZA INSTITUTUA

Harremanak sendotuko dira

Zer ekarpen egiten die ikasleei GOIESKOLAK?

Bergarako Ipintza Insitutuan, hiru herri-tako ikasleak daude: Bergara bertakoak, Antzuolakoak eta Elgetakoak. Hori ona da denondako, hiru herriotako gazteen arteko harremanak sendotzen direlako eta herri ezberdinen errealitateak hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen digulako. Orain, GOIESKOLARI esker, ibarreko herri guztietako ikasleen arteko harremanak sendotuko dira, horrek dakartzan onurekin, eta kanpora begira indartsuago sentituko gara, eskaerak egiteko orduan, esaterako.

Proiektu berriak lantzen ari gara

KURTZEBARRI / ARETXABAETA

Hizkuntzen curriculum bateratua

Autonomia Erkidegoko beste hainbat eskola bezala, Kurtzebarri ere, elebidun izatetik eleantza izatera pasa da. Gure kasuan, euskararen tratara eta metodologia, zein curriculumeko materialen garapenean, beste eskolendako abiapuntu eta erreferentzia izan gara urteetan.



SAN MARTIN AGIRRE / BERGARA

Artea ikasbide

Guggenheim Museoa-ren proiektu honetan parte hartzeko aukeratu izan da San Martin Agirre, beste 8 ikastetxerekin batera. Ekintza artistikoen bidez arreta handiagoz ikasten dutenez, tailerrek eraginkortasun handia dute irakurketa, idazketa eta hizkuntza gaitasunak lantzeko.



ARRASATE-ARETXABAETA / INSTITUTUA

Mundilab laborategia

Garapenerako Heziketa Laborategia lantzen dihardu Arrasate-Aretxabaeta Institutua, Nazioarteko Ekonomia eta Garapen Institutuaren laguntzaz. Material didaktiko berezi eta teknologia berriekin hornitutako gela batean, migrazioa, generoa, tolerantzia... lantzen dituzte.



LUIS EZEIZA / LEINTZ GATZAGA

Haur hezkuntzako gela

Luis Ezeiza Herri Eskolak Haur hezkuntzako gela abiatu zuen joan zen ikasturtean Leintz Gatzagan. Ekimen honi esker, haur txikiek aukera paregabea dute bere inguru hurbilean heztekoko, besteak beste, herria bizirik mantenduz.



Harremanetarako



LUIS EZEIZA L.H.I.

Gaztañadi, z/g • 20540 **Eskoriatza**
Haur eskola: 943 71 53 56
Lehen Hezkuntza: 943 71 49 38
Leintz Gatzaga: 943 71 42 14
Faxa: 943 71 49 38
Posta-e: 012065aa@hezkuntza.net



KURTZEBARRI B.H.I.

Santa Kurtz, 19 • 20550 **Aretxabaeta**
Tel.-Faxa: 943 79 57 40
Posta-e: 012945aa@hezkuntza.net

KURTZEBARRI ESKOLA

Santa Kurtz, 19 • 20550 **Aretxabaeta**
Tel.-Faxa: 943 79 00 49
Posta-e: kurtzeba@teletel.es



Arrasate Herri Eskola

ARRASATE HERRI ESKOLA

Udala bidea, z/g • 20500 **Arrasate**
Tel.: 943 79 77 74 • Faxa: 943 79 01 52
Posta-e: 012125aa@hezkuntza.net



ARRASATE-ARETXABAETA INSTITUTUA

D.B.H. 1. 2. eta 3.
Santa Teresa, 25 • 20500 **Arrasate**
Tel.: 943 79 44 47 • Faxa: 943 79 44 37
Posta-e: iarrasate@euskalnet.net

D.B.H. 4. eta Batxilergoak
Santa Teresa, 24 • 20500 **Arrasate**
Tel.: 943 79 20 38 • Faxa: 943 79 51 09
Posta-e: iarrasate@euskalnet.net

Heziketa Zikloak
Etxebarri auzoa, z/g • 20550 **Aretxabaeta**
Tel.: 943 79 79 00 • Faxa: 943 77 09 55
Posta-e: ia@aretxabaeta.euskalnet.net



SAN MARTIN ESKOLA

Nardeaga, z/g • 01160 **Aramaio**
Tel.-Faxa: 945 44 50 04
Posta-e: 010009aa@hezkuntza.net



ERREKALDE HERRI ESKOLA

Errekalde auzoa, 25 • 20560 **Oñati**
Tel.: 943 78 07 64 • Faxa: 943 71 83 17
Posta-e: 012134aa@hezkuntza.net



R.M.ZUAZOLA-LARRAÑAGA B.H.I.

San Lorenzo auzoa, z/g • 20560 **Oñati**
Tel.: 943 78 21 50
Aita Madina, z/g • 20560 **Oñati**
Tel.: 943 78 12 68
Faxa: 943 78 19 08
Posta-e: 013015aa@hezkuntza.net



SAN MARTIN AGIRRE

Bonifacio Laskurain, 25 • 20570 **Bergara**
Tel.-Faxa: 943 76 21 47
Posta-e: 012265aa@hezkuntza.net



IPINTZA INSTITUTUA

Bonifacio Laskurain, 17-19 • 20570 **Bergara**
Tel.: 943 76 31 42 • Faxa: 943 76 06 80
Posta-e: 012981aa@hezkuntza.net



ANTZUOLAKO HERRI IKASTETXEA

Buztinzuri, 4 • 20577 **Antzuola**
Tel./Faxa: 943 76 62 68
Posta-e: 012013aa@hezkuntza.net



HERRI ESKOLA ELGETA

Maala, 4 • 20690 **Elgeta**
Tel.: 943 76 82 26 • Faxa: 943 78 90 80
Posta-e: 012064aa@hezkuntza.net

Goienka2a

Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 25a

Kultura
eta
aisialdia



Urtarrilaren 25etik
otsailaren 1era

Acid Jazz zikloa Oñatin

**Euskal Herriko,
Kataluniako eta Estatu
Batuetako jazz talde
bana etorriko da
bisitan Oñatiko Santa
Ana aretora, bertako
Gaztelekuaren eskutik**

Eurek esaten dute: jazzak ez da Estatu Batuetan musikari beltzek egiten duten musika estilo bat bakarrik. Jazzak ere ñabardura ugari ditu. Estilo aberatsa da, eta talde bakoitzak bere ukitu pertsonala ematen dio: batak, lekuan lekuko doinu herrikoiena; besteak, poparena; hangoak, rockarena... Jazzak bere aberastasun osoan ezagutzen ez dutenek, otsailaren 1etik aurrera izango dute ikuspegi berri bat lortzeko aukera, Oñatiko Gaztelekuak antolatutako hiru kontzertuei esker. Ekainera bitartean izango dira. Eta, tartean, gainerako estiloei muzinik ez egitearren, formatu txikiko bestelako emanaldiak ere izango dira Oñatin. Liliput Oñati kontzertuak dira, gauza txikien xarma guztia erakusten digutenak. /LEIRE KORTABARRIA

Igelaren Banda.
Otsailaren 1ean joko du
Santa Ana aretoan



KONTZERTUAK/ 'ACID' JAZZ ZIKLOA OÑATIN, GAZTELEKUAREN ESKUTIK

Jazzaldi txikia Oñatiko Santa Anan

'ACID' JAZZ ESTILOKO HIRU TALDEK EMANALDI TXIKI BANA ESKAINIKO DUTE OÑATIN OTSAILETIK EKAINERA BITARTEAN

Jazz artistak ez dira Donostiara edo Gasteizera bakarrik joaten; Debagoienara ere bai! Otsailaren 1ean, Oñatiko gaztelekuak antolatu duen *acid* jazz ziklo laburreko lehenengo emanaldia izango da. Maiatzean eta ekainean, estilo horretako beste kontzertu bana izango dira Santa Ana aretoan.

Igelaren Banda talde euskalduna izango da lehenengo gonbidatua; horiek egubakoitzean izango dira Oñatin, 22:30etik aurrera. Maiatzaren 3rako, Dani Pérez Trio talde katalanaren kontzertua dago antolatuta, ordu berean; eta New Yorketik etorritako Ben Monder Quartet taldeak itxiko du zikloa, ekainaren 21ean. Ruper Ordorikaren kolaboratzailea da Monder.

Baina hemendik eta ekainera bitartean, *acid* jazz saio horiekin beste estilo batzuetako emanaldiak tartekatuko dira: Joseba Tapiarena, otsailan; eta Eddie Rider eskoziarrarena, maiatzean.



Hijas del Sol musika talde ginearrak Liliput Oñati kontzertu zikloan parte hartu zuen.

OÑATIKO GAZTELEKUA

Liliput herrietatik

Oñatiko gaztelekuo arduradunak asko arduratu dira herritarrondako eta inguruko musikazaleendako ahalik eta zuzeneko emanaldi gehienak antolatzen, eta otsailaren 1ean hasiko den jazz zikloa aurreko urtean hasitako egitasmo baten barruan dago: Liliput Oñati kontzertuak. Leku txikietan entzuteko emanaldi bezala sortu zuten egitasmo hura, eta helburua da munduko musikak Oñati bezalako herri baten neurrirra egokitzea eta eskaintzea.

Liliput Oñati egitasmoak hasiera-hasieratik izan zuen arrakastak ezustean harrapatu zituen antolatzaileak eurak: hango gaztelekuan ehun bat lagun batzen ziren emanaldi horietarako. Kopuru hori ez da sekula 80 lagunetik jaitsi. "Lehen ez zegoen Oñatin horrelako ekintzarik antolatzeko ohiturarik; Gabonetatik aratusteetara bitartean, hutsune handia izaten zen", dio Patxi Hipolitok, gaztelekuo arduradunak.

Liliput Oñatik mundu osoko hamaikakotako artista ekarri ditu ibarrera orain arte, eta halaxe segitzeko asmoa du. Bestek beste, Gineako, Eskoziako, Argentinako, Erresuma Batuko, Irlandako, Kataluniako eta Peruko taldeak etorri izan dira, eta era guztietako estiloak landu dira: folka, rocka, bluesa, tangoa...

BIXENTE MARTÍNEZ / ISELAREN BANDAKO KIDEA

"Gure doinuak sekula ez dira berdinak"

Igelaren Bandak hasiko du Oñatiko *acid* jazz zikloa. Iñigo Egiak, Txarli de Pablok eta Bixente Martínezek osatzen dute taldea.

Zelan jaio zen Igelaren Banda?

Duela hiru urte sortu genuen, helburu jakin batekin, hots, euskal doinuak jotzea, baina istorioak, hitzekin beharrez, instrumentuen bidez adierazita. Euskal tradizioetik edaten dugu, baina inprobisatu ere asko inprobisatzen dugu.

Hortaz, zuen estiloari jazz etiketa ipintzea oker legoke?

Ez, baina etiketak mugatzaileak dira. Jazza oso aberatsa da, ez da Estatu Batuetan musikari beltzek egiten duten zerbait bakarrik. Hemen ere badaude jazz musikariak.

Jazzak baditu jarraitzaileak Euskal Herrian?

Musika abestua hedatuagoa dago, baina hemen ere badaude jazz jarraitzaileak, oso fidelak, gainera!

Zuzenekoa ala diskoa gurago?

Jendaurrean, komunikazio eta emozio bereziak sortzen dira. Gainera, inprobisatu egiten dugunez, doinuak sekula ez dira berdinak, uanean sortzen dabilzanak baizik.

Proiektu asko dituzu: Oskorri, Hiru Truku, Igelaren Banda...

Hainbat gauza egitea gustatzen zait. Zerbait lagunekin lan egiteak gehiago ikasten laguntzen dit, eta dibertigarriagoa da.



Bixente Martínez.

Laster zabor-bilketa

EDUKIONTZIen bidez

Gogora ezazu bide publikoetan dauden beste edukiontzietatik ere biltzen dugula

- Edukiontzi urdina: papera eta kartoia
- Edukiontzi horia: ontzikiak eta ontzikien hondarrak
- Edukiontzi berdea: beira

Horiez gain, Hondakinen Depositu Alternatiboak daude

- Markuleten (Arrasate)
- San Kristobalen (Bergara)
- Urrutxun (Oñati)

ez zaborrarekin ez edukiontzietan biltzen ez diren hondakinatarako. Badakizu, doan da, eta obra-hondakinak, beira, etxetresna elektrikoak, zura, papera, kartoia, plastikoa, pilak, metagailuak eta abar eraman ditzakezu 3.500 kg baino gutxiagoko ibilgailuekin.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA



DISKOAK/ HIRU TALDE DEBAGOIENDARREK LAN BERRIAK DITUZTE DISKO DENDETAN

NIREAUKERA

Ibarreko taldeen osasun ona

DEBAGOIENEAN MUSIKA TALDE UGARI DAGO. HIRUK ORAINTSU ATERA DUTE DISKO EDO ABESTI BANA


Debagoiena oparoa da musika taldetan. Denetarikotiturrrietatik edaten dute, eta hori ondo islatzen da emaitzetan. Egia da punkak zeresan handia duela oraindik ere, baina beste mota batzuetako doinuek ere zaletasun handia pizten dute ibarreko musikagile eta entzule askorengan.

Gaur egungo taldeetan, Debagoiengan, behintzat, eklektizismoa da nagusi: denetarik entzun izan duten gazteek osatzen dituzte talde horiek, euren gustuak ez dira bide bakarrera mugatzen. Hori ondo sumatzen zaie, izan ere, euren buruari eta musika emaitzei etiketak ipintzea ez zaie batere gustatzen. Galdetzen diezunean, askok euren ere ez dakitela erantzuten dute; azkenean, ekinaren ekinez, euren erreferentziak aipatzen dituzte, eta horiek ere bakoitza leku batekoa izaten dira: Euskal Herriko zein atzerriko musikari eta taldeak, rocka, punka, metala, *funky*-a, elektronikoa... direla, eta horietako bakoitzak dituen aldaerak.

ARGITALPENAK

Ibarreko musika eszenari aberastasuna ematen dio horrek. Horren eredu, gaurkoan protagonista ditugun hiru taldeak: Txuleton's, Numen eta Serial Number. Albeste ditugu, izan ere, diskoa -lehenengo bien kasuan- edo disko baten abesti bat -hirugarrenenaren kasuan- kaleratu dute, eta, oraingoz, oso harrera onarekin.


Txuleton's taldeko kide bakoitzak bere "hezuntza musikala" du, eta horrek doinu eta istorio pertsonalak sorrarazten die. Serial Number taldekoek ere musika bilakaera berezia izan dute. Berdin gertatzen zaio Numen taldeari, *black metal* estiloko euskaraz lan osoa ateratu duen lehenengo taldeari. /LEIRE KORTABARRIA



'YA ES TARDE'
Txuleton's
Oñati



'GAZTEMANIAK'
Serial Number
Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñati



'GALDUTAKO
ITXAROPENAREN ERESIA'
Numen / Arrasate

Dibertsioa helburu nagusi bezala

Ondo pasatzeko helburuarekin eratu zuten orain dela lau bat urte Txuleton's taldea Oñatiko lagun batzuek. Orain ere xede hori dute nagusi, baina irailean argitaratu zuten diskoaren 250 bat ale saldu dituzte sorterrian. "Oñatin badugu jarraitzaile sutsu talde bat", diote taldekoek. Ondo pasatzeko asmo hori entzuleari "kutsatzen" diote. Gakoak? Alde batetik, estiloa: "rockak, musika afrikarrak, jazzak, musika elektronikoa, *funky*-ak eta inprobisazioak osatutako nahasketa", diote; bestetik, letrak -hor ere, inprobisazioa nagusi, istorio surrealista kontatzen dituzte; eta talde filosofia: "Doaneko taldea gara: aurrekontu eskasa duten edonora joaten gara", diote.

Orain, iaz baino doinu helduagoak

Foru Aldundiak antolatzen duen Gaztemaniak lehiaketaren bosgarren edizioan parte hartu du Serial Number taldeak. Oraintsu argitaratu den diskoan, Gipuzkoako beste hainbat taldeekin batera, ibarrekoek abesti bat argitaratu dute. Igor San Juan bakarlari aretxabaletarrak ere disko horretan parte hartu du. Musikan nerabe zirenetik daramaten arren, iaz sortu zuten Serial Number. Gaur egun, sei dira, eta, zenbat buru, hainbat aburu, baita estiloari dagokionez ere. Lisabö-tik The Prodigy-raino entzuten dute, tartean Eraso! eta antzeko taldeen doinuek direla. "Orain egiten dugun musika orain dela urtebete egiten genuena baino helduagoa da", diote euren.


Arrasateko mugak gainditzen

Hamaika komunikabidetan irten dira eta diskoaren bigarren edizioa prest dute. *Black metal* estiloko disko osoa euskaraz ateratu duen lehen taldea dugu Mondragoekoa, baina taldea osatzen duten zazpi mutilek apaltasun osoz hartzen dute hori: "Gu ez gara famatuak, *Operación Triunfo*-koak dira famatuak", diote, umore onez. Euskal kultura paganoa dute inspirazio iturri -izena ere hortik hartu dute-, eta kultura hori zabaltzea eta ahalik eta leku gehienetan jotzea dute helburu. Lau urtean hiru disko ateratzeko kontratua dute: "Horrek presio apur bat eragiten du, lanean jarraitu behar dugu... baina, azken baten, hori zen gure helburua, eta lasai jasan dezakegu presioa", azaltzen dute.

Mikel Lizarralde Musika kazetaria

Tom Waits-ek ia hiru hamarkadako ibilbidean grabatu duen disko berezietakoa da *Swordfish trombones*. Ez da, beharbada, haren lan osatuena, ez eta entzuteko errazena ere; baina Waits-en nortasun musikaren ezaugarri guztiak batzen ditu. 70eko hamarkadan bluesarekin, jazzarekin eta *rhythm and blues*-arekin lotura handia zuten maisulan asko egin ondoren grabatu zuen, eta Waits-ek beste norabide bat hartu behar zuela erakusten du. Musika tresna bitxiekin jantzi zituen kantuak, eta kabaret kutsuko melodiak landu zituen: *In the neighborhood*, adibidez, txaranga baten laguntzarekin grabatutako himno ahaztezi-na; eta *Johnsburg, Illinois, Town with no cheer* eta *Soldier's things*, nik sekula entzun ditudan kanturik tristeenak dira. Oilo-ipurdia jartzeko modukoak.


'SWORDFISH TROMBONES' Tom Waits



L.K.

KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal

LIBURUA / Sexua ikasgai



EROS TXOKOA

Luis Elberdin
Askabide
215 orrialde

Erosen txokoa sar gaitzeko Luis Elberdinen eskutik. Desioak, berotasunaldiak, pasioak, maitasuna, plazera... Askabideren laguntzaz eman da argitara "Erosen txokoa".

Aurretik *Sexulapikoa* argitaratu zuen. Orduko hartan, Egin egunkarian ateratako artikuluen bilduma izan zen; oraingoa, Gara egunkarian argitaratutako artikuluen bilduma da.

Klaru hitz egiteak eman dio Elberdini hitza. Hizkuntza ulertarrez darabil liburuan ere, galdera zuzenekin, erantzun zehatzekin, arazoak ondo aztertuz eta sakonera eramanez, komunikazioa indartuz, eta batez ere ahal den guztietan irtenbidea emanez. Sexua osasuna dela erakustera dator Elberdin, bizitzaren aldeko apustua dela nabarmentzera.

LIBURUA / Bertsolaritza



BAT-BATEKO BERTSOLARITZA

J. Gartzia, J. Sarasua,
A. Egaña
Bertsozale elkarte
230 orrialde

Oso ezagunak dira Joxerra Gartzia, Jon Sarasua eta Andoni Egaña. Curriculum luzeak eta jantziak. Ba horietan egin dute bat-bateko bertsolaritzaren gaineko gako eta azterbideekin liburu.

Bat-bateko bertsolaritza bere konplexutasun osoan azaltzea da liburu honen helburua. Aurrenik, gaur egungo bertsolaritzaren ezaugarri soziokulturalen berri ematen da. Gero, bat-bateko bertsoa sortzeko gogo-prozesua aztertzen da xehe-xehe, bat-bateko sorkuntzaren estrategiak bistaratuz eta estrategien mugak aipatuz. Azkenik, orain arteko teoriaren ahuleziak jaso eta bat-bateko bertsolaritza aztertu eta ulertzeko marko teoriko berri bat proposatzen da, erretorika klasikoaren ildotik.

DISKOA / Kantautorea



"KANTUZ SORTU NAIZ ETA..."

Erramun Martikorena
Elkarlanean
15 kantu

Kantu herrikoiak dira Erramun Martikorenak disko honetan dakartzigunak. Joandako belaunaldien eta etorriko direnen arteko zubi izan gura dutenak.

Martikorena Ipar Euskal Herriko kantu popularren irudirik esanguratsuen dugua. Kanturako dituen berezko dohainak direla-eta, Euskal Herrian zein mundu osoandako ere, iparraldeko kantu liriko herrikoia erreferentziarik garrantzitsuen bilakatu zen aspaldi: ahots apartekoa baitu, intentsoa eta sensibiltatez bete, naturala bezain xamurra.

Diskoko kantu eta poesien egile dira, besteak beste: Xalbador, Etxahun, Mendiage, Otsobi, Haroztegyu, Labegerie, Lete, Sarasua, Badiola, Alkat, Larre...

Urt. 25-Ots. 1

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: erredakzioa@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

ANTZERKIA

ELORRIO

► **Nearco Producciones** taldeak *La tentación vive arriba* antzerki lana jokatu du egubakoitzean, urtarrilaren 25ean, Arriola aretoan, 22:30ean, Veronica Forqueren zuzendaritzapean.

MUSIKA

ARETXABALETA

► **Txomin eta Urbil Artolaren** emanaldia izango da egubakoitzean, urtarrilaren 25ean, Loramendi elkartearen egoitzan, 22:30ean.

BERGARA

► **RIP, Flyshit, Supercools eta Goiko-Rock** taldeen emanaldia izango da egubakoitzean, hilaren 25ean, Jam aretoan, 21:30ean.
► **Iced Earth** taldearen kontzertua izango da zapatuan, urtarrilaren 26an, Jam aretoan, 22:00etan. *Horrorshow* izeneko lan berria aurkeztuko dute.
► **Oskorri taldeak** disko eta ikuskizun berriak aurkeztuko ditu martxoaren 16an, zapatua. Bergarako emanaldiaren ondoren, Debagoieneko beste herri baten bigarren bat egingo dute.

OÑATI

► **Igelaren Banda** taldearen jazz emanaldia izango da egubakoitzean, otsailaren 1ean, Santa Ana aretoan, gaztelekuak antolatutako ziklo baten barruan.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Nagusiendako euskal dantzak.** Lehendik izena emanda zeukatenez gain, parte hartzaile berriak hartuko dituzte. Egubakoitzero dira saioak, Musika Eskolan, 19:15ean.
► **Eskulan ikastaroa.** Argibideak eta izena ematea Kultura Etxean edo 943 71 10 27 zenbakira deituta egin ditzakezue.
► **Yogako hastapen ikastaroa eskaintzen du** Sadhana yoga taldeak. Argibideetarako, deitu 616 96 57 95 telefonora.

ARRASATE

► **Sabel dantza ikastaroa** izango da urtarrilaren 19tik aurrera, zapatuero, Arrasate Musikalen, 16:00etatik 18:00etara. Izena emateko edo argibideetarako, deitu Gazte Bulegora, 943 77 00 65 telefonora.
► **Latindar eta saltsa erritmoen gaineko perkusio ikastaroa** izango da urtarrilaren 28tik otsailaren 25era arte, astelehenero. Hastapen maila

landuko dute. Gazteluondoko aretoan izango dira eskolak, 18:00etatik 20:30era, eta Iñaki Bruña izango da irakaslea. Matrikulak 3.500 pezeta kostatuko du. Izena emateko, deitu gazte bulegora edo 943 79 80 25 zenbakira.

BERGARA

► **Zeramikaren hastapenei buruzko ikastaroa** izango da ekaina bitartean. Izena emateko, deitu 943 76 19 17 edo 606 68 41 94 telefono zenbakietara.
► **Fandango eta Arin-arin ikastaroa** Moises Azpiazu dantza taldearen eskutik. Argibideak: 943 76 15 40.
► **Pintura ikastaroa** antolatu du Beart elkarteak. Irakaslea Rikardo Azkargorta izango da. Argibideetarako, deitu 656 72 44 49 telefonora.

ESKORIATZA

► **Hainbat ikastaro** antolatu ditu Amuska emakume elkarteak: batetik, bolillo ikastaroa, astelehenero, 18:00etatik 20:00etara; margogintza, martitzeno, 10:00etatik 12:00etara; eta tela gaineko larru eta margo ikastaroa, martitzeno 18:15etik 20:15era, eta eguazteno, 15:30etik 17:30era eta 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko, joan Kultura Etxera urtarrilaren 29an edo 30ean, 18:00etatik 19:00etara.

DEIAK

ARETXABALETA

► **Immersok antolatutako bainuetxe programarako** udazkeneko txandarako izenematea zabalik dago maiatzaren 16ra arte.

ARRASATE

► **Txus Goikoetxea, Premin Sampedro eta Amaia Arrieta** preso mondragoetarrei bisita egiteko txangoa antolatu dute Gaztetxeok zapaturako, urtarrilaren 26rako. Alcalá-Meco eta Aranjuezeko presondegietara joango dira, eta 00:00etan irtengo dira Arrasatek. Izena emateko, jo Irati tabernara edo Gaztetxera. 2.000 pezeta kostatuko du.

BERGARA

► **Herriko odol emaileen elkarteak** euren lehenengo presidenteari, Joseba Jauregiri, omenaldia egingo dio zapatuan, urtarrilaren 26an. Bazkaria egingo dute Azpeitxi jatetxean, eta gura duen orok har dezake parte. Izena emateko, deitu Pedro Egañari, 943 76 23 94 telefonora.
► **Behaketa maratoia** antolatu du Pol-Pol mendizale elkarteak urtarrilaren 26rako. Izena emateko, jo elkarte bulegora, 19:30etik 20:30era, edo deitu 943 76 48 51 telefonora.
► **Pertxa elkarteak, 25. urteurreneko ospakizunen artean**, trufaren gaineko hitzaldi-afaria antolatu du otsailaren 1erako. Parte hartu nahi

dutenek urtarrilaren 28a baino lehen egin beharko dute izenematea, Pertxan bertan, 18 euroren truke.

► **Gaztetxeok zozketako zenbaki sariduna** 1086 izan da; hori ez bada agertzen, 601 izango da. Txartelaren jabeak Gaztetxera jo beharko du, han bizikleta bat du-eta zain.

ELGETA

► **Elgeta, sasiaren sustraiak** liburua aurkeztuko du Koldo Izagirrek eguenean, urtarrilaren 31n, liburutegian, 19:00etan. Segidan, Joseba Tapiak musika emanaldia egingo du.

OÑATI

► **Santa Ageda bezperan, kantari ibiliko dira** Errekalde Herri Eskolako irakasle, ikasle eta aita-amak. Parte hartu gura dutenek zapatuan, urtarrilaren 26an, izango dute entsegu orokorra, eskolako lokaletan, 11:30ean.
► **Zumaia eta Debara irteera egingo du** Aloña Mendi elkarteak mendi taldeak urtarrilaren 27an, domekan. Txaketuan elkartuko dira 08:00etan. Lasturren bazkalduko dute.
► **Merkatu laboralaren enplegu eta kualifikazio eskaerak** izeneko

hitzaldia egingo du Joxe Mari Roteta Langaiko teknikariak eguaztenean, urtarrilaren 30ean, Zuazola institutuko aretoan, 18:30ean.

► **Laixan euskara elkarteak egindako 2002ko egutegia salgai dago** Turismo Bulegoan, 400 pezetan. Antzinako argazkiekin egin dute. *Oñatiko Gida'02* ere salgai dago, hori, 500 pezetan.

ERAKUSKETAK

BERGARA

► **Jose Mari Galanen eta Azuren** argazki eta artisautza lanen erakusketa dago ikusgai Artekaleko pizzerian.
► **Mila Garmendia** arrasatearraren olio-pinturen erakusketa dago Nahikari tabernan, urtarrilean zehar.

ESKORIATZA

► **Ikkurrinaren legeztapenaren 25. urtemuga dela-eta**, erakusketa berezia bisitatzeko aukera izango da Kultura Etxean otsailaren 1etik 3ra, 18:30etik 20:30era.

JAIK

ANTZUOLA

► **San Anton jaiak** ospatuko dute urtarrilaren 27an Parteittin. 12:00etan, meza izango dute, eta ondoren, salda eta sagardoa hartzeko aukera izango da. Trikitilariak ere jardungo dute.

ARRASATE

► **San Balerio jaiak** ospatuko dituzte Meatzerreka auzoan gaurtik domekara bitartean. Gaur, 21:00etan, auzo afaria izango da; bihar, futbito partidua, 12:00etan; ume eta gazteendako jolasak, 15:30ean; mus txapelketa, 17:00etan; erromeria eta txerri harrapaketa, 23:00etatik aurrera; eta domekan, meza, 11:30ean, eta txistularien emanaldia, 13:00etan.

BERGARA

► **San Paulo jaiak** ospatuko dituzte Uberan, gaur eta bihar. Gaur, meza izango dute, 11:00etan; salda eta txorizo jana segidan, eta makailu afaria eta erromeria, 21:30ean. Bihar, 10:30eko mezaren ondoren, salda eta



► JAIK

AL ANDALUS ELKARTEAK XII. URTEMUGA OSPATUKO DU

Arrasateko Al Andalus kultura elkarteak hamabigarren urteurrena du aurten, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte hori ospatzeko. Domekan, hilaren 27an, izango da ospakizuna, Musakola auzoko euren egoitzan. 10:30ean, Salamancako andaluziar etxekoei harrera egingo diete; 10:45ean, mokadua hartuko dute, eta 12:00etan, parrillada izango dute euren egoitzan. Arrasalde partean, Arrasatek zehar bisitaldia egingo dute, eta anaitze bazkaria izango dute 15:00etan. Azkenik, 17:30ean, Arrasateko eta Salamancako etxetako taldeek musika eta dantza emanaldiak eskainiko dituzte.


Non: Arrasaten, Al Andalusen egoitzan. **Noiz:** urtarrilaren 27an, domeka. **Ordua:** Egun osoan zehar.

AIPAGARRI

Jabier Retegi

BERGARA

Hilabete honetan erretiratuko da Jabier Retegi, lau urtez Mondragon Unibertsitateko errektorea izan dena, baita MCCko Teknologia eta Kalitate arduraduna ere. Aurretik, Eusko Jauriritzako Industria eta Hezkuntza sailburuorde eta Industria sailburu izandakoa ere bada Jabier Retegi.



Maria Jose Gil

MONDRAGOE

Atleta aipagarriari saria emango dio Gipuzkoako Atletismo Federazioak Maria Jose Gil korrikalari mondragoetarrari denboraldi amaieran. Besteak beste, 60 urtetik gorakoan kategorian, 1.000 eta 5.000 metroetako probetan Estatuko txapelduna izan da aurtengo denboraldian.



Nerea Zubiete

ESKORIATZA

Arrasate Irratiko esatari berria dugu Nerea. Oraingo astean bertan hasi da irratian lanean. Informazio Zientzietan lizentziaduna da. Duela urte batzuk ere ibili zen Arrasate Irratian, ia lau urtez. Gero, Leintz Gatzagako Museoa ibili da lanean, baita Euskal Telebista ere, erredaktore lanetan.




Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkariaren* ordezkartzetako batera.

Goienkaria
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 60 €.




Agustin Nuñez Peluco antzuolarra eta **Maite Uribetxeberria** bergarra duela 25 urte ezkondu ziren, 1977ko urtarrilaren 9an, hain zuzen ere. Joan den astean ospatu zituzten **zilarrezko ezteiak** euren senitartekoekin batera; Landara joan ziren bazkaltzera. Horrela, euren Antzuolako eta Bergarako familiartekoei **zorionak** opa dizkiete eta urte askotarako izan dadila!

URTEURRENA

Inaxio Gallastegi Osoro

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 27an, 12:00etan, **Elgetako** parrokiari



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Aurelia Uriarte Barrutiabengoa

Arrasaten hil zen 2002ko urtarrilaren 16an, 83 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

JAIOTAKOAK

Iker Álvarez Sánchez. Arrasaten, urtarrilaren 10ean.
Maia Odriozola Ballester. Oñatin, urtarrilaren 16an.
Eider García Lete. Bergaran, urtarrilaren 18an.

HILDAKOAK

Aurelia Uriarte Barrutiabengoa. Arrasaten, urtarrilaren 16an. 83 urte.
Justo Lamariano Ugalde. Elgetan, urtarrilaren 18an. 97 urte.
Miguel Igarza Ugarte. Antzuolan, urtarrilaren 18an. 58 urte.
María Taboada García. Arrasaten, urtarrilaren 21ean. 85 urte.
M. Carmen Bilbao Arantzabal. Bergaran, urtarrilaren 22an. 70 urte.

URTEURRENA

Angel Mari Ayani

Lehen urteurreneko meza eguenean, urtarrilaren 31n, 19:00etan, **Arrasateko** San Juan Bataiatzailearen parrokiari



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

Palmira García Castro

Haren omenezko meza domekan, urtarrilaren 27an, 12:30ean, **Bergarako** San Pedron.




Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Mari Karmen Bilbao Aranzabal

Bergaran hil zen 2002ko urtarrilaren 22an, 70 urte zituela.





Hileta-elizkizunetara joandakoei, Mizpirualde egoitzako lagunei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Zarauzko	Musika nota	Eguna
	Izena	Hitzontzia	
Adimen handikoa	Leku hartarat	Bokala	Bilkurak
Kontso. bustia	Prezipitazio mota	Gipuzkoa-ko herria	
Garbitua	Kaltzio oxidoa	Kontso. bustia	Boroa
Sortu zintuena	Röntgen	Röntgen	
Deitura	Rutenioa	Kontso. nantea	Lore
Nire	Sanferminetak o martxa	Lore	
Jatorri atzizkia	Bihi	Bihi	Lehen biak
Islandia	Lehen biak	Lehen biak	
Esku itxia	Kasik	Iridioa	Indioa
Aintzira	Kontso. errep.	Indioa	
	Naizen honek		

BILABILATZ



UMOREGIROAN/ Juan Martin Elexpuruk jasoak

ZORRAK

Tabernarixak, hasarre, esan dotsa bezeruari:

- Bueno hi, hau ez dok jiria. Eran eta eran eta sekula pagau ez. Noiz pagau bihar ditzuk zorrak?
- Apuntaitzak.
- Apuntau, apuntau... noiz arte jarraitu bihar juat apuntatzen?
- Nik "fuego" esan arte!

ARDAUK BIZITZA MOZTU

Bi lagun, tabernako mostradore onduan berriketan:

- Nik entzuta dotenez, medikuak esaten ei juek arduak bizitza mozten dabela.
- Medikuak arrazoia jaukek. Konturatuta najaok ni, eran bareko egunak luzeaguak direla.

SOZIALISTAK

Gerra aurreko bi sozialista zaharrek barriketan ziharduen politikia gora eta politikia behera.

- Oin arte danok ibilli gaittuk elkarren kontra, baiña ointxe bagoiazek batuaz. Abadiak pe sozialismuan alde berbetan hasitta jarek.
- Bueno, bueno, hori ezin dok egixa izan. Gu bizi garen artian etxuau holakorik ezagutuko.
- Baietz gizona. Joan XXXIII.ak "Pacem in Terris"-en esaten dabena betetzen bajuek, guregana jatozek. Oiñ arte hor ibilli ditzuk gu eskumara eruan nahian eta hor nun datozen erak ezkererra.
- Ba, hara Benito, horrek ezkererra bajatozek, ni eskumara najoiak.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




Debagoieneko euskara elkarteak

Debagoieneko euskara elkarteak urtero kaleratu ohi dute argazki zaharrez hornitutako egutegi apain bat. 2002rakoa orain dela gutxi kaleratu dute. Bailarako herri guztietan daude euskara elkarteak, baina, ezagutzen ote ditugu? Hona hemen lau euskara elkarteren izenak, baina horietako bat ez da Debagoienekoa. Zein?

- eta kitto!
- AED
- Laixan
- Txirrittola.

Erantzun zuzena: ...eta kitto! Eibarkekoa da; AED, Arrasatekoa; Laixan, Onaitikoa eta Txirrittola, Aramaiokoa.

SOLUZIOAK



L	A	K	U	N	I	K
U	K	A	B	I	L	A
S	I	A	I	R	R	I
T	A	R	A	L	E	
E	N	E	R	U	L	
R	R	A	S	T	I	
A	M	A	T	T	B	
I	K	Z	A	A		
D	E	R	I	A		
A	H	A	R	A	T	
R	E					
D	A	B	I	D		
S	Z					

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Zure egitasmoek arrakasta izango dute oinarri sendoak badaukate. Maitasun kontuetan, ondo: bikotekidea badaukazu, oso zoriontsu ibiliko zarete elkarrekin, eta ez badaukazu, harreman ederra hasteko moduko pertsona ezagutuko duzu.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Ingurukoek ez daukate zure arazoan erua; beraz, kontuz ibili, bikotekidearekin batez ere, liskarrik nahi ez baduzu. Adi ea zer sinatzen duzun, iruzur egin diezazukete eta...

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Lehendik egindako ahaleginen emaitzak batzen hasiko zaren arren, jarraitu gogor beharrea zure helburuak lortzeko. Beharbada bidia egingo duzu, eta bidia horrek ideia zaharkitu batzuk aldaraziko dizkizu.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Araoak beharrea, nagusiekin liskarrak izango dituzu, ez dituztelako zure proposamenak onartuko. Osasun gorabeherak direla eta, osagilearenera joan beharko duzu.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Jokaera zaharkituak bazterten badituzu eta onura ekarriko dituzten zure inguruko aldaketak onartzen badituzu, guztiak onera egingo du. Lagunen batek zutaz esandako gezurrek zure adiskideak ei ziren batzuk utz ditzazun eragingo dute.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22

Atsekabetuta eta nahiko lur jota zabiltza, eta ondorioz, bakarrik egoteko gogoia edukiko duzu. Ez zaitzez ezertan hasi, ez da-eta unerik onena.

LIBRA

irailak 23-urriak 22

Oso pozik ibiliko zara, izan ere, besteek zure ideiak kontuan izateaz gain, nahi dituzun helburuak lortuko dituzu. Onerako aldatetako maitasun kontuetan: bikotekidea badaukazu, beharbada bidia egingo duzue elkarrekin, arazotxoak konpontzeko; ez badaukazu, harreman polita hasteko moduko pertsona ezagutuko duzu.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Araoak diruarekin: batetik, gutzietan larri gastatuko duzu, eta bestetik, Ogasuneak edo beste erakunderen batekoek, atzeratutako zorren bat ordaintzeko eskatuko dizute. Lar zakar jokatzeko liskarrak eragingo dizkizu, bikotekidearekin batez ere.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Hartu modu onean etorriko zaizkizun aldatetako, onerako izango dira eta, beharrea batez ere. Jende berria ezagutuko duzu, eta elkarrekin ondo ibiliko zarete.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Urak edo kezetasunak eragindako kalteren bat dela-eta, konponketak egin beharko dituzu etxean. Kontraturen bat sinatu edo beste zerbait negoziatzeko asmoa bazenukan, atzeratu ezazu, ahal izanez gero.

AQUARIUS


urtarrilak 21-otsailak 20

Sormen gaitasun handia eta gauza asko egiteko gogoia izango dituzu. Maitasun kontuetan, ondo: bikotekidea badaukazu, zuen harremanaren onerako izango diren aldatetako egingo dituzue; ez badaukazu, harreman sutsua hasteko moduko baten bat ezagutuko duzu.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20


Zure asmoekin aurrera egin nahi baduzu, pixka bat moldatu beharko dituzu. Oso ideia on asko daukazu, baina ez lezazkiozu inori kontatu, izan ere, baliteke inguruko baten bat horietaz jabetzea.



GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

Goiena Telebista

Posta elektronikoa: goitb@goiena.com



IGOR LARRAÑAGA/
'XELEBERRI' SAIOKOA

“Telebistakoa lan polita da, eta jendea ezagutzen da”

Bergararra, 24 urte. Antzuola-ko ELAYn egiten du lan; klarineta jotzen du Bergarako bandan; eta, Bergarako futbol taldean dihardu, Juanina Garai entrenatzailearen laguntzailer. GOITBko Xeleberrin erreportari ibiltzeko astia ere badu.

Noiztik Xeleberrri saioan?

Orain dela bi urteko Bergarako jaieran saio berezia egin behar zela eta deitu ninduten. Gero, irailean, Xeleberrri saioa hasi zen GOITBn eta hala hasi nintzen neu ere.

Gustura?

Bai, lan polita da eta jendea ezagutzen duzu.

Zelan moldatzen zara kalean galderak egiten?

Ondo. Zailena da astelehen arratsalde batean kamera eta mikroa hartu eta kalea ateratzea, oso jende gutxi ibiltzen da-eta.

Jendeak ondo erantzuten du?

Denetik dago, batzuek kamera ikusi orduko hanka egiten dute, batez ere gazte jendeak. Helduagoak animatzen dira.

Egin duzun galderarik xelebreena?

Behin galdetu genuen, gizon bat putetxe batera joan zela, eta han, sekulako tititarrak zituen emakume batek gizonari nahi barik lepoan eman eta tiratu bat eragin ziola. Eta gizona, pare bat astetan lepoa ezin mugiturik egon zela eta, kalteak ordaintzea eskatu ziola putetxeari. Ea zer iritzi zeukan jendeak albiste horri buruz.

Eta erantzunik xelebreena?

Xelebreena ez dut gogoratzen, baina batzuek gauza bati buruz galdetu eta beste gauza batzuen gainean erantzuten dute.

GOITB ikusten duzu?

Bai, albistegiak batez ere. Bestela, generalean, kiroleko saioak, dokumentalak, *Sorginen Laratza*...

'Astebete'

Egubakoitzean, 20:30ean

GOIENKARIARI Argia saria

Asteko gai nagusiak gainbegiraten ditu Marijo Deogracias kazetariak egubakoitzero *Astebete* saioan, eta aste honetan, ezin ahaztu GOIENKARIAk jaso berri duen Argia saria. GOIENKARIAren itxuraz zer esateko asko duen Goio Arana diseinatzailea gonbidatu du Marijok saiora. Aste honetan, gainera, Marijok Iban Arantzabal izango du solaskide, asteak emandako beste hainbat albisteri ere gainbegiratu egiteko.

'Iparrorratza'

Martitzenean, 20:50ean

Oraingoan, Tibetera

Tibetera egingo dugu bidaiari aste honetan *Iparrorratza* saioan, eta Julen Aranguren aurkezleak Juanjo San Sebastian alpinista ezaguna izango du bidaiari-lagun. Makina bat aldiz izan da Juanjo lurralde hartan, eta ezin hobeto ezagutzen ditu hango herririk, tenplu, monasterio eta, batez ere, mendiak. Lurralde xarmangarri hura bisitatzeko aukera martitzen honetan, gaueko bederatzietatik aurrera.

'Sarean'

Eguaztenean, 20:30ean

'Sustatu.com'

Hileko azken eguaztenetako *Sarean* saioaren txanda iritsi da. Lore Martínezek interneten inguruan egingo digu berba, luze eta zabal; erreportaje nagusian Arrasaten zabaldu berri duten Konekta Zaituz gunea landu du. Bestalde, aurkeztu berri den *sustatu.com* webguneaz jarduteko, Iban Arantzabal *sustatu.com*-eko editorea gonbidatu du Lorek. Saioan web-kamera bat zozkatuko dugu, eta urtarileko saria zein den ere jakingo dugu.



Asteko programazioa/ Urtarrila 25-31

EGUBAKOITZA 25	ZAPATUA 26	DOMEKA 27	ASTELEHENA 28	MARTITZENA 29	EGUAZTENA 30	EGUENA 31
14:00 Berriak 14:20 Sarrera doan 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak	14:00 Xeleberrri Iparrorratza Perura joango gara saio honetan. Goibegirada Ikurrina legezkatu zeneko 25. urteurrena gogoratuko dizuegu, garai hartako protagonistekin Sarrera doan Soinuz blai Azken bideo klipak aurkeztuko dizkizue Ugutz Usandizagak. Astebete	14:00 Xeleberrri Iparrorratza Perura joango gara saio honetan. Goibegirada Ikurrina legezkatu zeneko 25. urteurrena gogoratuko dizuegu, garai hartako protagonistekin Sarrera doan Soinuz blai Azken bideo klipak aurkeztuko dizkizue Ugutz Usandizagak. Astebete	14:00 Berriak 14:25 Astebete 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Goienasport Asteburuan gure kirol taldeek jokaturako partiduen gainbegiratu zabal. 21:30 Berriak	14:00 Berriak 14:30 Goienasport 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Xeleberrri 21:00 Iparrorratza Tibet bisitatzeko aukera, Juanjo San Sebastian alpinista ezagunaren eskutik. 21:30 Berriak	14:00 Berriak 14:30 Xeleberrri 15:00 Iparrorratza 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Sarean 'Sustatu.com' webguneaz egingo digu berba Iban Arantzabal editoreak. Lore Martínezek zuzentzen du saioa. 21:30 Berriak	14:00 Berriak 14:30 Sarean 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan Ondorengo egunetarako ibarrean kontuan hartu beharrezko hitzorduak aurkeztuko dizkizue Amagoia Lasagabasterrek. 21:00 Soinuz blai 21:30 Berriak

TELEBEGI/ Edorta Arana

Aukerak

To hiru eslogan: "Teknologia berrien garapena"; "Mugarik gabeko telebista"; "Bakoitzaren gustuko eskaintza". Estatu Espainiarreko telebistagintzan egon diren aldaketak ilustratzeko erabili izan diren esaldi biribiletako hiru. Hori bai, egunerokoak erakusten du jendearen beharrak eta nahiak ez direla hain ponpoxoak ezta hain sofistikatuak izaten. Esaterako, Via Digital eta Canal Satellite Digital plataformek eskaintzen dituzten programa ugari eta desberdinen artetik gehien ikusten direnak Antena 3, Telecinco eta Canal Plus dira. Horretarako ez zegoen hain urruti joan beharrik. Parabolika, harpidetza eta tele-mando sofistikaturik ez zegoen erosi beharrik betikoa ikusi ahal izateko! Badirudi, azkenean, gure gustu eta kontsumo joeretan ez garelako hain bereziak. Telebistaren aurrean ere ezaguna aukeratzen.

KAMERA AURREAN




"Herri baten nortasunaren ikurra zen ikurriña. Honek Madrileko gobernua urduri jartzen zuen. Gainera, orduan herria indartsu zegoen eta Madril, berriz, ahul"

Jose Luis Elkoro / Bergarako alkate ohia
"Goibegirada" (2002-01-23)



"Autoen antzerakoa da hau; hemen eta han mina hasi arte. Orain ongi nabil Jainkoari eskerrak, eta kilometroak ongi egiten ditut"

Maria Jose Gil / Korrikalari beteranoa
"Berriak" (2002-01-23)



EGIN TXOTX! sagardotegietan



Iturrieta Iturrieta baserria / Arraga auzoa
ARAMAIO / 945 44 53 85

- Urte guztian zabalik
- Sagardotegi garaia, sagardotegiko menua
- Etxeko sagardoa
- Ziburuak umeendako
- Bertako janaria
- **100 lagunendako lekua, eserita edo zutik**



Ixaun Elosu auzoa / BERGARA
943 85 32 50

- Urte guztian zabalik
- Sagardotegiko menua
- Untxia eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- **55 lagunendako lekua**
- **Urtarrilaren 26an Txotx inaugurazioa!**



Elutxeta Elutxeta baserria / URNIETA
943 55 69 81

- Apiril bukaera arte zabalik.
- Aste barruan egun osoan txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretea urte osoan.
- Bertako janaria.
- **200 lagunendako lekua, eserita edo zutik.**



Uzturre Santa Luzia auzoa, 25 / TOLOSA
943 65 57 72

- Apiril bukaera arte zabalik
- Urte osoan sagardotegia zabalik (apirila eta gero, botilatik)
- Sagardotegi menua 20 €
- Saiheskia edo baserriko oilaskoarekin menua 17 €
- Eserita



Eizmendi Osinaga auzoa / HERNANI
943 55 64 05 / 670 635 671

- Apiril bukaera arte zabalik.
- Erretea urte osoan.
- Bertako janaria edo norberak ekarria.
- **150 lagunendako lekua.**



Aulia Aulia Enea baserria / LEGORRETA
943 80 60 66

- Abendutik maiatz bukaera arte zabalik.
- Bertako janaria.
- **110 lagunendako lekua, eserita edo zutik.**



Rezola Ipintza baserria / ASTIGARRAGA
943 55 66 37

- Apiril bukaera arte zabalik.
- Zapatu eta domeka eguerdian zabalik.
- Bertako janaria.
- Arkumea burduntzian eta arraina parrillan enkarguz.
- **100 lagunendako lekua, eserita.**



Otatza Otatza baserria / ZERAIN
943 80 17 57

- Apiril bukaera arte zabalik.
- Erretea urte osoan.
- Bertako janaria edo norberak ekarria.
- **170 lagunendako lekua eserita.**



Eula Lategi auzoa / URNIETA
943 55 27 44

- Zabalik, otsailaren 1etik apirilaren erdialdera arte.
- Gaez: astelehenetik zapatura.
- Eguerdiz: zapatuetan bakarrik.
- Bertako jana eta 130 lagunendako lekua.
- Oso kalitate oneko 3.000 sagarrondo baino gehiago ditugu. Sagardo naturala egiten dugu.

Atzeskua

ENEKO AZKARATE

Agustin Aranzabal/ Realeko jokalaria

Aita Gaztelu izanda, semea futbolaria izan behar.

Hala izan ohi da sarritan. Esaerak dioen moduan, nolako egurra, halako ezpala.

Urte asko geratzen zaizkizu oraindik?

Beno, 29 urte egin behar ditut martxoan, eta erretiratzeko adin ona 34 urte izan daiteke. Ikusiko dugu. Garrantzitsuena da fisikoki ondo egotea.

Donato Deporrekoren sasoia edukiz gero...

Beinke!, 40 urterekin punta-puntan eta sasoiu.

Gaixorik dago Reala?

Sailkapenari begiratzen badiogu, baietz esan genezake. Ez da lehenengo urtea, gainera. Azkenean, beti irte-

ten gara zuletik eta espero dezagun aurten ere lehenbailehen gora egitea sailkapenean. Zorte apur bat ere falta zaigu. Azken partiduetan ondo jokatu dugu.

Orain, baina, garrantzitsuagoa da txarto jokatu eta puntuak ateratzea.

Nola imajinatzen duzu denboraldi amaiera?

Nahiz eta azkenera arte sufritu, gutxienez, iazkoa modukoa bada, gaitzerdi.

Zelaiaren ezkerreko jokaldi askotan De Pedro duzu lagun, eta badirudi ezkontzerako orduan ere biok ados jarri zaretela.

Bai, ni neu lehenengo, Idiakez ondoren eta De Pedro orain. Hurrengo ez dakigu zein izango den. Bata bestearen ostean erori gara...

Eta hirurak protagonista izan zarete La Razón egunkariak argitaratutako albiste zikin hartan.

Epaileak arrazoia eman digu eta badirudi egunkari horri zigorra ezarriko diola gezurrak esatearren. Hala ere, poziago egongo nintzateke ezer argitaratu izan ez balute. Kaltea egina dago.

Nork agintzen du Realeko aldageletan?

Kapitaina Idiakez da, eta jokalaria gustura gaude berarekin.

Katedraleko zaleak ez dira santu-santuak, ala?

Apur bat harritu ninduen Athleticeko zaleen jokarera.

Agustin beti txurirduz jantzita?

Hemendik bi urtera arte seguru, kontratua daukat eta. Gero gerokoak. Asmoa Realean amaitzea da, baina hori ez dago gure eskuetan bakarrik.

Mongatxurak (Agustinen lagun taldea-

ren futbito taldea) eskaintza eginez gero, utziko zenuke Reala?

Aztartzekoa izango litzateke (barrez). Azken urteotan Realean baino hobeto pasatuko nuen lagunekin, ziur.

Bizitza osoan futboleko jardun ostean, botak eskegitakoan zer egingo duzu?

Hori ez dago jakiterik. Hala ere, ez dut uste futbolari lotuta jarraituko dudarik. Ez dakit, ez dakit.

Parrandarako denborarik izaten duzu?

Asko ez. Bergarara ere gero eta gutxiagotan joaten naiz. Ezkondu naiezenetik... Beste konpromiso batzuk ditut orain. Hala ere, sekula ez diot lagako Beragara joateari. Han dauzkat lagunak, familia...

Joan zen astean 250 partidu bete zenituen Realean.

Bai, garrantzia ematen diot horri. Baina, ez naiz konformatzen, gehiago nahi ditut.



“Azken partiduetan ondo jokatu dugu. Orain, baina, garrantzitsuagoa da txarto jokatu eta puntuak ateratzea”

“Kapitaina Idiakez da, eta jokalaria gustura gaude berarekin”

“Ezkondu naiezenetik... asti gutxiago daukat parrandarako”

► Bergararra / 28 urte / Gazteluren semea

PIPERRAUTSA

Redondo

Epelkeriarik gabe esango dut. Ez dut gogoko Nicolas Redondo. Haren ordezkia edonork dela, uste dut alderdi sozialistak hobera egingo duela. Agian euskal politikak ere bai.

Ez dut gogoko Redondoren ezaugarri bat, oso berea: hitz egin ordez zaunka egiten du. Telebistan, behintzat, ahoskera, tonua eta keinua beti izaten ditu ospelak, mingotsak, besikula txarto baleuka moduan. Elkarbizitza ez du behar horrelako buruzagi erretxinik.

Nicolasengan gogoko ez dudana bigarren akatsa beste politikari askok ere badute: ez dute beren proiektua saltzen, erakargarri bihurtzen. Horretan baino gehiago ahalegintzen dira besteen proiektuak desitxuratzen edo kakazten.

Redondok uste badu hegoaldeko euskaldunontzat onena dela Espainiako Konstituzioa eta Estatutua, saia bedi horiek saltzen. Azal diezagula gaurko legedia bizitoki egokia dela, eta egokiago egin ahal izango dugula denon artean. Agian horrela konbentzitutako gaitu. Ez, ordea, mehatxuka, esanaz ez duela inoiz onartuko muga horiek gainditzerik. Oraintxe 25 urte Fragak antzeko zerbait esan zuen ikurrinari buruz, eta hitza jan behar izan zuen.

Hori bai, beste aldekoek ere badute nahiko lan independentzia erakargarri egiten, aurrez nahi ez dutenen begientzat.

Momentuz, Redondo ez da sozialisten idazkari kargura aurkeztuko. Pozten naiz.

MIKEL IRIZAR

Kalitate Gehiago

TodoMueble KABIA erakusketan zabalena aurkituko duzu kalitate gorenarekin: logelak, egongelak, gaztetxoendako altzariak, bestelako osagarriak, apainketa... Leku eta aurrekontu guztietara moldatzen diren altzariak. Gure dekoratzaile profesionalen laguntzarekin eta baldintza ekonomiko ezin hobeearekin:

- Sei hilabetean, deskontuarekin, eskura ordaintzea balitz bezala. Edo
- Hogeita lau hilabetean, interes barik, eta gura baduzu seigarren hilabetetik aurrera has zaitzake ordaintzen.

Badakizu, ona den guztia **TodoMueble KABIA**n aurki dezakezu.



TODO Mueble Kabia

Gipuzkoa Etorbidea, 28
Tel. 943 79 27 70 • ARRASATE